

**Jean Elizalde «Zerbitzari»**

**57a Gerlan**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *LVII.a gerlan*, Jean Elissalde (Patri Urkizuren edizioa). Alberdania, 1995

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00379.htm>

# I. Lehen egunak, lehen guduak

Mila bederatzi ehun eta hamalaua! Eskual-etxeetan hameka nigar eginarazi duen urthea! Gerla hasteko urthea!

Bainan gerla aiphatzea balio othe du denboraren buruan? Ezetz iduritzen zitzaukun. Baietz iduritu zaiote gure adixkide batzueri, eta bazina-kite zer elhe pollitak atxeman dituzten lan huni lotzea delibera dezagun! Horren gainerat Soubelet jaun kalonjeak jakinarazirik *Eskualduna* gerlako berrieri lorietan zabalduko zuela, egun huna gu, lan hau Jainkoaren laguntzarekin noizpeit bururatuko dugulakoan! Badakigu: gerlarietan bakarrak badire guk baino gehiago ikusi eta egin dutenik, bakarrak gerlan ikusiak guk baino hobeki hemen erran zetzazkenik: ez dire ausartatzen holako lan bati lotzerat. Hutsak barka detzotela ausartatzen denari, othoi. Sobera galdetzen othe dugu? Ondikotz, ez dezakegu gerlako xokho bat baizik aipha: gurea. Beraz ez dugu hemen Berrogoita Hamazpigarren Oinezkoa baizik aiphatuko:

hartan egina dugu gerla. Bainan uste dugu bertze erreximendu guziek horrek bezenbat egin dutela: bat nola ibili den ikusiz, eskualdunek ikusiko dute nola ibili diren bertzeak...

Jauntzi berri ederretan, Arrochaforte eta Liburnako hiri ederreri behingotz adio erranik, Berrogoita Hamazazpigarrena treinetan sartu da. Orai badoa. Badoa Lorraina deithu eskualdeari buruz lehenik. Ez du haatik hezur zaharrik eginen han: lau egun ttipiren buruko Beljikatik galdea heldu zaio. Euriak euriari hartzen du harateko bidea. Comercy, Bar-le-Duc, Ste-Menehould, Vouziers, Hirson eta Avesnes laster hortan iraganak dire. Huna Belgika. Agorrilaren hogoita bata zen. Egun hortan ohartu ginen egiazki gerlarat ginoazila. Jada ihesi zoazin xahararak, emazteak eta haurrak, ahal zituzten guziak bizkarrean, nigarrez, abiatu orduko lehertuak. Ikhara, gainerat.

Salatuko othe dautzuegu hemen egun hartan erran elhe batzuez, airerat eman kontseilu batez dugula gure gerla guziko urriki bakarra? Bide bazter batean ginauden, etzanak. Hurbiltzen

zauzku bi neskata. Bi ahizpa zitazken itxuratik hartzeko:

—Barkatu, jaun soldadoa: kontseilu bat eman behar daukuzu. Burhasoak hilak ditugu, gure anaia soldado da: etxea utzirik Frantziarat joan behar othe dugu berehala edo egon othe gaitzke hemen gaindi irrisku handirik gabe?

—Haur maiteak, nihundik etzauku iduritzen lotsatzekorik baduzuela oraino: itzul zaizte beraz zuen etxerat: hoinbertze eta hoinbertze harat-hunatekin bideak ere baditu bere irriskuak zuentzat!

Ethorri bidetik itzuli ziren etxerat, eta, ondikotz, segur alemanen aztaparretarat erori! Gaixo neskatak! Bai, orhoitzeko eguna guretzat, hori: bainan orhoitgarriagoen ikusterat ginoazin laster! Jada bi armada frantses Sambre derizan ur handiaren kontra alemanarekin zalapartaka ari ziren hiruzpalau egun hartan. Gure aldia hurbildua zen: arras hurbildua.

Agorrilaren hogoita hiruan ethorri zitzaion manua, eta Berrogoita Hamazazpigarrena berehala zabaldu zen landa handi batzuetan. Fontaine-Valmont delako herrixkan gelditu ginen gero-

ni, elizaren inguruetan, xixpa puntaraino kargatua, nor nundik agertuko zen. Thuin begien bixtan ginuen eta jada hango karriketetan tiro bakhar batzu adi zitazken. Etzen oraino lotsatzekorik. Irri egiten ginioten ere, han nunbeit, airean zapartatzen ziren aleman obusa batzueri.

Irriak sartu ziren haatik betbetan xara batetik gainerat ethorri zitzaukun tiro parrapatarekin! Hain xuxen, largabixtak begietan, xokho batean xutik zagon kapitain bat, tiro batek kopetaren erdian atxemanik, zabal-zabala erori zen, hila, doidoia oihu bat eginik: *Haurrak, gorde ongi!* Berrogoita Hamazazpigarreneko lehen hil maittea, geroztik gure ondoan hil diren aintzindari eta soldado gutiz-gehienen izenak ahantzixiak balinbaditugu, zurea sekulan ez dugu ahantziko: bethi odolezko hitzez nun-nahi gure begiek eta gure bihotzak irakurtuko dute: Constans!

Constans kapitaina erortzen ikustearekin, alemanek uste izan zuketen aintzindari guzietan handiena hil zaukutela eta lotsatuak ginela. Kantuz eta irrintzinaka xarako zuhaitz guzien gibelatik atheratzen ikusi gintuen guri buruz abiatzeko, beren gapelu gris marra gorriekin. Gainerat igo-

rri ginioten ximixtarekin, etziren nahi baino lasterrago sartu berritz beren xaran! Hola egiten dire gerlako aprendizkoak. Guk ere arratsalde hartan egin behar gintuen!

Gure koronelari iduritu othe zitzaion xara hartan etzela aleman hainitz? Ez dakigu. Bortzgarren konpainiari manatu zion bethi zoala baionetekin xaratik alemanen fueratzerat! Gure lagun gaixoak abiatu ziren eta alemanetarik berehala ukhan guk doidoia emana giniotenaren ordaina: tirokaldi bat ikaragarria.

Jo handik, jo hemendik, alemana aintzinatez rat ez uzteko gure bothere guziez bermatu ginen oro, handik goiti, eta arratsalde apalak leku bertsetan atxeman gintuen, elgarretarik bizpahirur ehun metretan.

Guari ginauden loriatuak, ilhunari esker xaran sartuko ginela ixilka eta alemaneri emanen giniotela orhoitzeko prerekaldi bat. Gerla ez da zathika egiten: ez da zathika egin behar. Lan onik egitekotz, ez da bakotxa bere alde bermatu behar: orok bat eginez ere, bada zer egin. Aintzindari handiek jakinarazi zukuten beraz ez ginezan xara haren aintzinean bertze denborarik

gal eta emeki-emeki egin ginezan gibelat. Zer errabia beltzak hartu gintuen oro! Bainan manatua egin behar! Lehenik lauzpabortz, gero bos-pasei, han-hemenka elgar laguntzeko itzuliz, abiatu ginen beraz Beaumont deithu herrixkari buruz. Gauerdiko han behar ginuen.

Eta horra nun ilhuna nausitzerat bezala zozalarik, gutarik aski hurbil soldado tropa handi bat ikusten dugun trankilki guri buruz heldu, oraino ezagutzen ez ditugun jauntzi batzuetan. Aintzin-aintzinean hiruzpalau gizon alimale Beljikako bandera handi batekin, eta hautarik batek frantses zerratu ederrez oihu egiten dauku:

—Adixkideak, ez gaitzatzue gero tiroka!

Gero eta hurbilago gintuen: kasik ehun urhatsetan. Beharrik orduan norbeit ohartu baitzen alemanak zirela! Bildotx larruarekin otso hek gure bandera nahi zaukuten ohartgabea ebatsi! Kukuak makhur jo zioten eta, baionetak xixpen puntan, jauzi egin ginioten gainerat. Gehienak hantxe gelditu ziren lurrean, ahoz goiti. Gehien-gehienak gero! Bainan min ederrik egin zaukuten hek ere eta geroxago Beaumont hartako karrika bakarrean gure sailak kondatu gintue-



larik, zer huts-arteak! Sei aintzindari eta lauetan hogoita hamar bat soldado hilak: bertze hoinbertze kolpatu eta galdu bertzalde. Gerla hasia ginuen. Ez litake guri espantu egitea gure Berrogoita Hamazazpigarrenaz, bainan nola ixilik egon gure lagunen bihotza arratsalde hartan ikusi-eta? Gerla bururatu arte egintza harrigarri frango ikusiko dugu: harrigarriago guti. Jainkoak nahi izan baitzuen Thuin jada aipatu herri hartako jende gaixo batzu ondoko egunetan nunbeit kausi ginetzan, nahi duzue salatzea zer erran zukuten? Huna hitzez hitz: «Bi egunen buruan, alemanak urrunduxe zirelarik, joan ginen gudu ikaragarri hura egin zinuten gunerat. Bidea ez ginuen aise iragan: hilez emokatua zen. Xokho batean bi frantses eta bi aleman atxeman gintuen beren baionetekin oraino elgarri josiak!»

## II. Bertze gudu ikaragarri batzu

Agorrilaren hogoita laua, zer egun hitsa! Are hitsagoak ondoko hiruzpalauak!

Hogoita lauean zortzi orenetako alemanak pur-pur-pur ikusi gintuen oihan batetik atheratzen. Gure tiroek laster itzularazi zituzten beren gerizetarat. Bainan huna nun manu berri bat heldu zaukun hainbertzenarekin: gibelat egiteko lehenbailehen, alemanak nausitzen ari direla gure bi bazterretan! Gure zakuak bizkarrean hartu gintuen eta han-hemenka, etsaiaren zaintzeko, lagun batzu utziz, joan, joan eta joan gibelat bizpahirur egunez, beldurra zamari eta gosegarriak bideko lagun. Pipatzeko belhar miko bat ukhan baginu bederen!

Artetan alemanak soberaxko hurbiltzen bazitzauskun, gure beilari eta zaintzaleek bi tiroz laster frogatzen zioten bidea etzela oraino arras libro, ez ginela oro hilak. *Nach Paris* eta *nach Paris* [1] nahi duten bezenbat oihu eginik ere, behin baino gehiagotan, bide erditarat ere joai-

teko, luma ederrik utziko dute Berrogoita Hamazazpigarrenaren eskuetan. Bertze eskuetan utziko dituztenak, bertzalde!

Agorrilaren hogoita zortzian Guise deritzan herrixka pollit baten parean ginen. Gure bidetik bazter-arazi gintuzten, herrixka hortan amor ematerat zoazin batzuen laguntzeko. Egun hartako harat-hunat, jauzi eta kalapitek ez dute izenik eskuaraz! Arratsean gure xixpak ez ginezazken gehiago hunki, hala berotuak ziren! Lau ehun gizon galdu gintuen hantxe! Haatik uste etzuten zafraldia hartu zuten alemanek ere egun hartan eta badakigu, aleman gerlako liburu batean irakurturik, egun txarrago guti ukhan dutela gerla guzian!

Ondoko gauean beterraba batzu landa batean kausiturik, zoin gogotik lothu ginitzaioten oro ausikika, gosez baino gehiago egarriz! Baina jan-edanek baino indar gehiago ematen dio gizonari bihotzak, eta nola ez ginioten bizpahirur egunez alemaneri oraino frogatu ez ginela ahulduak, are gutiago lotsatuak. Agorrilaren hogoita hamarrean, Chevresis-les-Dames delakoan ginauden beraz bethi erne nundik agertuko

zitzaukun etsaia. Han gaindi ziren anglesek amor emanik, iduri zuen bere indar guziak gure kontra egin behar zituela. Ez. Algeriako tropa zaldizko batzu artean sartu zitzauzkun eta gu, bake denboran bezen trankil, berritz bideari lothu Marne derizan ibai famatu hartaraino. Horra nun eta nola atxeman gintuen goiz batez guziek daki-zuen Joffre [2] jeneralaren oihuak. Buruilaren bortza zen: biharamunean behar ginuen alemaneri oldartu orok hilka...

Eskualdunek guk bezen ongi badazkite orduan ikasi izen batzu: Montceaux-les-Provins, Montmirail, Château-Thierry, Fismes, Merval, Maizy, Craonne, Craonnelle. Sobera ongi gogoan hartuak ditugu sekulan ahanzteko. Herri horietan hasi ginuen oldar handia.

Egia, hau da bizkitartean: seietik hamahiruraino Berrogoita Hamazazpigarrenak etzuen deus handirik egin. Etzaukuten galdetu. Urrunskotik jarraiki ginen beraz gudu ikaragarriari, behar-orduan eskukaldi bat nor-nahiri emateko prest haatik...

Hamahiruan, suaren erdian ginen berritz, Ventelay, Poucy eta Ponlavert iraganik, Corbeny

hartzeko. Erratea bezen errex balitz egitea, berehala hartuko ginuen Corbeny. Lanak ikusi gintuen, eta ez gintuen arratseko baizik hartu azken etxeak. Alabainan emeki ibili behar ginuen harat doatzin bideetan, segurak ez baitu parerik. Eta ongi egin ginuen hola jokatzeari ezen, usnatu gintuzteneko, alemanak karraskan tiroka hasi zitzaizkion Craonne-ko patarretarik.

Jendeak baziren oraino Corbeny-ko etxe batzuetan. Aditu bazintuzte heien loriazko oihera eta karrasiak gu ikustean! Bainan guk ez ginuen konplimenduen egiten gelditzeko astirik: urruntxago xara bat bazen, alemanak xaran; eta lehenbailehen heken handik fueratu beharra etzuen luzatu, eta gau hartan delako xaran egin ginuen lo. Lo arin bat haatik, gathuak bezala begi bat artetan idekiz xixpa kargatua gorputzari kontra, zer gertatze.

Etzen deusik gertatu gau hartan. Bainan biharamunean! Argiko aleman kanoiak orruaz hasiak ziren. Eta zenbat! Behinere ez ginuen oraino hoinbertze aditu! Bederatziak alderat etsaiak abiatu ziren gutarik hurbildu nahiz beza-

1a. Oren batez gure tiroek beren lurrari itzatu zituzten.

Gisa hortan eta buruz buru nihundik etzaukula amor emanaraziko ikusirik, bertze zerbeit asmatu zuen orduan alemanak: gibeletik behar zitzaukula oldartu. Berry-au-Bac gure eskuinean baitzen, jauzian joan zen harat, hango beilariak phorroskatu, eta itzuli handisko bat eginik berritz guri jazarri, erran dugun bezala, gibeletik. Zer odolak ixuri ziren hantxe oren pare batez! Bi aldetarik ulia bezala zoan gizona lurrerat! Baina sobera baziren, aise sobera, guk bakarrik buru egiteko, eta, hori ikusirik, jeneralak manatu zaukun Corbeny berehala uztea eta doi bat bederen gibelatzea. Ahal zen bezala, obusa erauntsi ikaragarrienaren azpian jo ginuen beraz La Villeaux-Bois herriraino eta han kokatu, etsaia hurbiltzerat utziko ginuen baino lehen oro hilen ginela zin eginik elgarri. Hirur aldiz oldar gaitzean ethorri zen lehen etxetaraino: hirur aldiz gure baioneten puntan urrundu ginuen han barna.

Gutituz ginoazin haatik eta beldurtzeko da gau hartan berean amor eman beharko ginuela, handik goiti gutaraino atrebitzen ziren etsai

guziak Tarbeko Hogoita Laugarrenak bere kanoiekin phorroskatu ez balitu! Gau hartako bakea ukhan baginuen hola, ez dugu uste bezperan baino lo hainitz gehiago egin ginuela horren-gatik...

Egundaino bezala tiroka ari ginen argihas-tean. Bainan zertako geroko xehetasunetan sar? Holakoetan bethi xehetasun berak ditazke. Egun guzia jozak eta emak arizan ginen bezperan bezala, lur phuska frango hartu, eta gero galdu. Ondoko gauean La Ville-aux-Bois hustu ginuen haatik etsaien kanoiek eta oldarrek azkenean leherturik, gose-egarriekin ezin xutik egon...

Hamaseia, aski egun goxoa, guziak har. Pabeko erreximendua gu baino pausatuxago baitzen eta ez hala hondatua, gure tokiak har arazi ziozkaten eta gu ezkertxago igorri. Etsaia etzitzaukun batere oldartu, izan ez bagine baino gehiago. Egia erran pabetarrekin ukhan zuen nun josta!

Hala-hala, hamazazpian argia gabe etsaiaren kanoiak guri buruz hasiak ziren. Etziren ixildu arratsaldeko bi orenak arte. Etsaia noiz agertuko zitzaukun aintzinat beha ginauden, gibeletik

heldu zitzauzkula aldi huntan ere beilari batek oihu egin zuelarik. Harritu ginen, bainan ez lotsatu eta, behin han atxikirik, lagunetarat joateko bidea moztu ginion bi jauziz.

Hortan bururatu zen guretzat *Bataille de la Marne* erdaraz erraten dioten gudu latzgarria, eta aztaparka zilho egiten hasi ginen, zilho hetan ilhabeteak eta ilhabeteak kasik higitu gabe egoteko...

Aise asmatzen duzue hiruzpalau egun horietan sarraski ederrik ikusi ginuela; zortzi aintzindari hil zauzkuten, eta ehun eta hamabi soldado; zazpi aintzindari kolpatu, eta lau ehun eta hogoitak hemezortzi soldado. Galdu gintuen eta eritu zauzkun gizonekin, hemeretzi goizean konduak egin gintuelarik, Berrogoita Hamazazpigarrenak bazituen zortzi ehun eta hamabi gizon eskas. Oi, lagun maiteak!...

[1] *Pariserantz, Pariserantz*. Alemanez. (Paratzailearen oharra. P. O.)

[2] Joseph Joffre; Frantziako mariskala (Rivesaltes, 1852 - Paris, 1931) Iparraldeko armada frantsesaren buru, Marne-ko gudu erabakiorrean ira-bazle. 1915. urtean, armada osoko komandante buru izendatua. (P.O.)



### III. Bizi berri bat

Bizi berri baten hasterat ginoazin. Gerlan ibili direnek badakite zer izan den: sathorraren bizia. Sathorra noizetik noizerat lurpetik menturatzen da kanporat: ez gindauzken bethi lurpean gu ere: atheratzen ginen arteka. Hola ezagutu ditugu Cuiry-les-Chaudardes, Concevreux, Blanc Sablon, Maizy, Beaurieux, Glennes, Meurival. Herri hautan hartzen ginuen hatsa. Bereziki Meurival delako herrirat zer atseginarekin joaiten ginen! Han baziren orduan bospasei aphez eskualdun, batzu bertzeak baino maitagarriago: etzakiten zer egin guretzat. Bat Azkaraten erretor da egungo egunean: bertze bat irakasle edo holako zerbeit Miarritzen. Gaineratekoak hil othe ziren? Dena dela begietarik galduak baditugu, ez ditugu ahantziak ez ahanztekoak...

Erran ditake zango bat airean ginuela oraino: ez ginakien nun kokatuko ginen azkenean. Ondoko egun batez ereman gintuzten Bourg-et-Comin derizan herrixka pollit, argi eta arinean egoterat.

Ez ginen haatik arras besoak gurutzaturik egon harat joan arte. Beha. Urriaren hamahiruan jeneralak manua igorri zaukun Moulin de Vauclerc hartzeko, eta hartzeko *gostako zena gusta*. Goizeko sei orenak ziren lehen gizonak eiherari buruz abiatu zirelarik. Ahal zuten bezenbat gorderik ere, etsaiak ikusten zituen, ondikotz! Hiruzpalau ehun metra egin orduko etzen urrunago joaiterik hango obusa eta tiro parrapatarekin. Jenerala bera ohartu zen beharrietarat heldu zitzaion ihurtzuritik sobera galdetu zaukula *gostako zena gusta* eiherarat joitea galdetuz, eta bigarren mezu batean erran zaukun *ahal ginuen egiteko*, aleman kanoiak ixilik zauden epheetz baliatuz. Hola bizpahirur ausik-eder egin gintuen etsaiaren eremuari, bainan gutiegi eginen urrun joiteko eta guziz bururaino heltzeko. Orduan, oro ikusi eta pisaturik, jeneralak manatu zaukun, ginen tokietan gelditzea eta finkatzea. Ez ginuen bertzerik galdetzen.

Bakea zitzaukun hori. Horrek ere etzuen haatik luzez iraun behar. Hamalauetan, eguerdi gainean berritz manua ekharri zaukuten delako eiherarat lehenbailehen heltzeko, eta, gure

kanoiek zenbeit orro bakar egin orduko, abiarazi gintuzten jada egintxeak gintuen zilhoetarik. Arratseko hamar orenetan eiheratik ehun metretan ginen. Ehun metra! Eskua luzatzea aski kasik eihera mila sorginaren hartzeko, eta guk gehiago eskua ezin luza indar eskasez! Ez ginuen beraz hartu, bainan ba lau ehun lagun gaixo bidean hedatu!

Orduan gintuzten Bourg-et-Comin delako hartarat ereman, handik Chemin des Dames zaintzeko. Verneuil eta Beaulnen hartu behar gintuen errekak [1].

Hamazazpi ilhabetez etxean bezala jarri ginen Bourg-et-Comin hartan. Noizean behinka alemanak ez balauzku inharrosaldi ba-tzu eman, ez dakigu ez ginen arras eta arras hangotuko!

Herrian bagintuen hirur ostatu jaterat eta edaterat arras ongi eta erdi merke emaiten zaukutenak. Han edo hemen bakhotxak bere egoitza moldatu zuen eta egoitza hortan deusik etzen eskas, sasoineko lore polliteraino.

Kaskoinek bazuten beren jostalekua phentze handi batean eta noiz-nahi han ikusten gintuen foot-ball delako joko basan, galtza motz batzu

soinean, odoletan ari. Eskualdunek pilota mai-teago dugu eta gure plaza baginuen etxe baten kontra. Ez dugu segurki behin ahantziko nola egun batez, Salaberry bildoztar eta Castagnet Lekunberrikoarekin geroni ari ginelarik, obusa ikaragarri batek lastersko lekhuak hutsarazi zauzkun!

Ihiztariak berek bazuten nun josta. Elizaren puntako gurutzearen puntan bazen burdinazko oilar bat, haizea norat zoan irakusteko. Nork konda ihiztariak igorri ziozkaten tiroak! Biga bazituen triparen erdian: Gan-tchume Senpereko ihiztari famatu batek emanak zituela erraten zuten. Baditake.

Eta, horien guzien gainerat, bazen elheketa-ko xokho bat: *Le salon de l'Eloquence* erraten zioten erdaraz. Dominique Dufau Senpereko notari maitagarria zen xokho horren jabe eta nausia. Zenbat aldiz ez ditugu haren alderat bilduak ikusi Ybarnegaray [2] deputatua, Leixelard jaun apheza, Jean-Pierre Larregain Donibane-Lohitzunekoa, orai Garroan buruzagi den Landetcheberry jaun apheza, J. Paris Senperekoa, Zerbitzari eta bertze frango!

Eliza maite zutenek, etzuten urrun: herriaren erdi-erdian. Elizkizun ederrak baziren noiz-nahi, bainan eskualdunek egiten zituztenak baino ederragorik ez dugu ikusi. Bereziki bazen han musikari eskualdun bat elizkizun horieri ezin sin-hetsizko eskual usain baten ematen nihork baino hobeki bazakiena. Aitortuko othe dugu geroneri egundaino eliza batean deusek ez daukula biho-tza hala zarraztatu nola arrats batez, benedizio-neko denboran, gure musikariaren erhieki ez tiki eta kartsuki xaramelatu zuten *Uso xuria errazu* batek? Oi, hango elizkizun maiteak!

Goraxago lainoki, erran baitautzuegu Bourget-Comin hartako eskualdean azkenekotz ederki lakhetuko ginuela noizetik noizerat nun ginen alemanak orhoitarazi ez bagintuzte, arras egia da. Han baitziren haatik alemanak!

Umasaindu eder bat iraganik, uste ginuen Hilan-Eguna ere hala-halakoa iraganen ginuela, eta elizarat abian ginen lagun hil gaixoentzat othoitz baten egiterat, betbetan zortzi oreneri buruz ehun aleman kanoia marrumaka hasi zauzkunean. Erreketan utziak gintuen beilariak nahi zituzten ohartgabean lehertu alemanek,

gero guri buruz heldu ziren bideez jabetzeko. Bi jauziz erreketarat joanarazi gintuzten oro. Ez ditugu zeren egun hartako harat-hunat eta zala-partak aipha: beren egin-ahal guzien eta gainerat igorri zauzkuten erauntsi guzien gatik, alemanek etzaukuten berrogoita hamar bat metra lur baino gehiago hartu. Han ixuri zituzten odol purrustek gehiago balio zuten!

Etzuen ilhunak ere gudua arras gelditu: tiro zalapartaka ari ginen oraino goizeko hirur orentan... aireari naski. Iduripena dugu gudu hortan ikusi eta aditu gintuela lehen aldikotz soldado gaixoeri zainak hala inharrosten eta odol guzia hala itzulipurdikutzen ziozkaten *minenverfer* [3] debruak!...

Abendoaren hogoita lauean Eguberri goxo bati beha ginaudelarik, horra nun bospasei soldado polones alemaneri espakaturik gure erreketarat heldu zauzkun herrestan. Gure harritzea! Jainkoak igortzen zauzkun. Batek bazakien aski ongi frantsesa eta, bertze askoren artean, salatu zaukun «biharamunean oldar bat gaitza gure kontra egin gogo zutela alemanek». Etzuen gezurra. Eguberri egunean argia gabe frogatua

ginuen, inguruetakoko kanoi guziak orroaz hasiak baitziren! Ehun hilez goiti baginuen arratseko, bainan alemanek ere etzuten sudurrik agertzen ahal izan: ez gintuen utzi. Horra, bada, nola iragan ginuen gure lehen Eguberria gerlan...

Eguberri baino Urtats hobea ukhanen othe ginuen ginauden oro. Hala ukhan ginuen, eta Beaulneko errekek utzirik zoin gogotik joan ginen gure *Urthe On* hoberenaren adixkide batzueri erraterat! Lahirigoyen anaiek, Leicia-guezahar amikuztar liotinantak, Capendeguy doniandarrak eta bertze zenbeitek egin zaukuten begitarte ez dugu aise ahantziko: arratsean ez ginakien lurrean ala zeruan ginen!

[1] Erreka: lubakia. (P.O.)

[2] Jean Ibarregaray; (Uharte-Garazi, 1886 - 1956) Abokatua. Garaziko deputatua (1914), Espainiako Gerra Zibilean errefuxiatuei laguntza ukatu zien, eta Petain jeneralaren gobernu-ministro izan zen. (P.O.)

[3] (sic) *al. Werfen; eusk. jaurti. minajaurti-tzaile* (P.O.)

## IV. Verduneko ifernua

Mila bederatzi ehun eta hamabortzgarren urthea hasi da: zer ekharriko othe dauku? Deus onik naski! Jada ez ginuen gerlaren laster bururatzeko esperantza mikorik gehiago...

Hamazazpi ilhabete lekuaren gainean iragan dituen soldado batek ez du aise egun guzietz gertatu zaiona erranen: egun haini-tzek elgar iduri zuten. Maizegi gauza berak errepikatu behar lituzke eta irakurtzaileak ase letzazke. Ez gintuzke sobera ase nahi! Jauzika ibil gaiten beraz larrienetarik larrienetarat, gogorat heldu zauzkun heinean, eta bezala!

Urtharrilaren hamalauean *minen* erauntsi ikaragarri bat burutik beheiti igorri ondoan, berrogoita hamar bat alemanek jauzi egin nahi izan zaukuten gainerat. Hobeki eginen zuten higitu ez balire: erdiak hil gintuen gutienetik. Geronek, bi hil eta zenbeit kolpatu.

Otsailaren hemezortzian, aintzinean nor ginuen jakiteko, dotzena batek jauzi egin ginuen alemaneri buruz. Ez ginuen nahi ginuena egin



guk ere, bainan bospasei lagun galdu, ba. Zenbat behargabeko urhats ez dugu hola egin haste hartan!

Uztailaren hogoita bortzean rusiano alemanekin gune hartan lanean ari zen batek ihes egin zioten eta gure erreketan sartu, jada aiphatu polones batzu bezala. Egia edo gezurrak, zernahi berri eman zaukun.

Geroxago, Champagnako gudu handia hasi zelarik, uste izan ginuen guk ere gure zilhoetarik atheratu beharko ginuela eta norapeit aldaratu. Ez: han berean utzi gintuzten oraino eta bethi. Nihork ez luke haatik gure gerla hori etzela gerla edo holako gerla aise egiten dela erran behar: zilho horietan iragan dituen hamazazpi ilhabetetan Berrogoita Hamazazpigarrenak lau ehun hilukhan ditu eta sei ehun kolpatu. Hirur ehun galdu bertzalde. Hori ez bada gerla?

Hola atxeman gintuen ondoko Apherilak. Etzen orotan gehiago Verdun baizik aiphatzen. Harat deithu gintuzten beraz denboraren buruan. Ez dugu gordeko batere ez ginela berantetsiak!

Zenbeit egunez bidean eskola berezi ba-tzu eginarazirik, goiz batez hartu gintuzten beribil handi batzuetan eta, aizea bezala Givry-en-Argonne, Triaucourt, Nubécourt eta ez dakigu nun gaindi ereman. Lapitzak ez dauzku izen guziak paperean atxiki! Landrecourt delako herri beltz zikhin batean egin ginuen lo, moroek sel-hauru batean utziak zituzten zorrien erdian. Herri hortan ukhan ginuen haatik atsegin bat: zenbeit eskualdun buruz-buru eginik arratsari buruz, hetan atxeman ginuen hurreko adixkide handi bat: Frantchua Iribarne, Baionako trinket berriko nausia. Zer oren goxoa iragan ginuen elgarrekin! Frantchua, milesker hogoi urtheren buruan...

Maiatzaren hiruran lau egunen jatekoa eman zaukuten eta gauaz gudu tokiari buruz abiarazi. Bide guziak harat eta hunat zabil-tzan soldadoek zauzkaten: ez, etzen errex ibiltzea. Jada ageriz zen nunbeit zerbeit handi bazela. Nun? Laster ikusi behar ginuen gure gostuz.

Ez da gure eskuetaratu libururik aski erran duenik zer ifernua izatu den Verdun. Hamabi egunez gure begiz ikusi dugu geronek, bainan ez

dezakegu bertzeek baino gehiago erran! Eskuarak ez du aski hitz handi eta sarkorrik hortako! Norbeiten izpirituak berak ez dezake-eta asma! Hain xuxen, egun batez, Douaumont delakoari buruz ginoazilarik, bidean buruz-buru egin ginuen Ybarnegaray jaun deputatu gure adixki-dearekin. Hango ifernua jastatua zuen jada. Jauzi batez gainerat ethorri zitzaukun, besarkatu gintuen eta erran: *To, gaizoa, Jainkoak zaint hezala!* Jainkoak zaindu gintuen, ezen hau finka dezakegu, eskuetako bortz erhiak juramentu egiteko elgarri lothurik. Verduneko ifernutik ez da bizi eta oso atheratu, Jainkoak zaindu duena baizik!

Baitire erraten dutenak egungo egunean ez dela gehiago mirakuilurik ikusten, gu bezala Verduneko ifernuan sartu balire eta handik erre gabe atheratu, ez litazke hola min-tza! Guk eta gure lagun batzuek zango-besoak oraino ukhaita, horra mirakuilua!

Gau guzia bidean ibili ginen, nihun gelditu gabe: argia ginuen halere gure tokitarat heldu orduko. Argi zabala gero! Batzu gelditu ziren Tunnel de Tavannes delakoan, ber-tzeak Fort de Vaux delakoan, gutiz gehienak erreketarat joan

haatik. Erreketarat joan? Nun ziren errekek?  
Etzen nihun bat ageri lur irauli hortan...

Manua ukhana ginuen, harat joaitean, zernahiren gatik zehe batez gibelat ez egiteko, lekhuaren ganean hiltzeko oro alemanak buruaren altxatzerat utziko gintuen baino lehen. Manu bera eman zaukuten bizpahirur edo lauzpabortz egunen buruan Thiaumont deithuaren aintzinerat igorri gintuztelarik ez dakigu zertako. Obusa erauntsi latzgarrienen gatik, aire pozoindatuen gatik, jada han eta hemen usteltzen ari zirenen usain ezin jasanaren gatik, gose-egarrien gatik, ororen gatik, ez ginuen bururik gibelat itzuli. Berrogoita Hamazazpigarreneko gizonak, Verduneko aldia bururatua ginuela erran zaukutelarik baizik. Lau ehun eta berrogoi hil han utzirik, joan ginen pausurat. Ehunka kolpatu bertzalde.

Verdunen izan diren soldadoetan bat ez da, gogoz edo bortxaz, bere eginbidea ederki bethe ez duenik. Batzu badire haatik ber-tzeek baino gehiago egin dutenak. Nola ez aipha eskualdun bat hemen? Etchegoyen senpertarra, Achkonatarretarik bat. Donibanen dago egungo egunean, karrikan ikusten duten hurrek gapelua khen-

tzen ahal diote lurreraino! Kanoiak karrasiaka ari ziren batez, mandatari bat galdetu zuten hitz bat norapeit hel-arazteko. Bere burua eskainirik, eta kasik segurki heriotzeari buruz zoala jakinagatik, Etchegoyen abiatu zen lasterka. Horra nun bide erditarat gabe obusa batek ehorzten duen. Lurpetik hats bahi hamahirur orenen buruan ateratu zutelarik, aintzindarieri badakizue zer erran zuen gaizo eskualdunak?: *Barka, othoi, hitz hau ez badut oraino hel-arazi! Nahuzue oraino egin dezadan?* Erran gabe doa etzutela utzi; baina ba gerizarat *nahi bazuen eta ez joanarazi.*

Ez dugu menturaz bertze behin soldado kas-koinik hemen aiphatuko, eskualdunekin berekin ukhanen baitugu zer erran, baina Camales deit-hu gure lagun batek merezi du. Mandatu baten norapeit erematerat zoan hura ere, Etchegoyen bezala. Kolpatua da bidean: zangoek ez dezakete gehiago ez ibil ez atxik. Herrestan helduko da bururaino, odola purrustan doakiola, mandatua doidoia eginen du eta han berean... hila eroriko! Gaizo Camales!

Hoberenetik ere, soldadoek etzezaketen luzez iraun Verdunen: gehieneri zainek gaina

hartzen zioten, bertzeak zenbeit egunen buruko burutik joanarazten zituen egartsuak. Ez daki pairatzea zer den behinere luzez edan gabe egotu ez denak! Sofrikarioen sofrikarioa, hori da segur! Aise sinhetsiko duzue beraz nola atsegin hartu ginuen hamabi egunen buruan ifernu hartarik atheratu ginelarik!

Ligny-en-Barrois herri pollit bat da eskualde pollit batean. Harat ereman gintuzten pausatzerat, eta han iragan gintuen hogoi egun goxo. Arrats gehienetan inguru guzietako eskualdunak elgarretaritzen ginen, elizan elizkizun maite zerbeit eginik, gero bi mus partidaren ostatuan egiteko. Han egin gintuen bereziki hendaia andana baten ezagutzak. Zer gizon gazte maitagarriak B. Pardo, E. Molle, I. Avril, B. Olascoaga, A. Egui-mendi, A. Etchenausi eta izenak galdu ditugun bertze batzu! Bainan, gerlako denboran erreka beretan hain adixkide ikusi ditugun adixkide horiek zertako behar ditugu orai bi erreketan ikusi? Hainbertze eta hainbertze lagunek beren odola bakearentzat ixuri-eta, zertako behar dugu orai gerlarien arteraino gerla ikusi? Ezin sinhetsia da holakorik badela nihun.

Verduneko akhidura joan orduko, gure zainak beren ozkan eman orduko, Argonara, manatu gintuzten, eta treinek lau oren laburrez ereman gintuzten haradino.

## **V. Argonan lau ilhabetez, eta handik lekora**

Argonan ba omen zen gerla aintzinean La Harazée deithu herrixka pollit koxkor bat. Gu harat orduko, han etzen gehiago etxe karkakil bat baizik xutik zagonik. Aski dilindan hura ere segur! Etxe haren aintzinean iragaitean gu baino lehenago han ziren gure bi adixkide maite L. Dassance [1] uztariztar eta orai Baionako ikastegi handi batean irakasle den A. Bourdet jaun aphezari doidoia erhi punttez agur eginik berehala jo ginuen Fontaine-aux-Charmes delakorat. Laster erran dezagun haatik ez dakigula nihork zer atxeman dion egundaino holako zokoari holako izenaren emateko! Hango errekek behar gintuen atxiki lau ilhabetez, aldizka gure lagunekin Camp-de-Dubiefville eta Croix-Genlin oiha-nartean gerlak sor-arazi taulazko bi herrixketarat jautsiz. Ste Menehould eta Florent etziren urrun noizetik noizerat aire hobexago baten har-tzerat joaiteko.



Mila bederatzia ehun eta hamabortzean gudu itsusienak, ikaragarrienak ikusi ziren Argona hortan; gu harat heltzean etzen gehiago kalapita handirik, bizpahirur egunetarik *crapouillots* [2] direlakoan kalapita okhaztagarria salbu. Etzuten haatik beilariek lokhartu behar, etsaia noiz-nahi gutaraino hurbil-tzen baitzen othardiz othardi, soldado bat edo bertze ebatsirik berrien jakiteko. Bere xederik etzuen, behinere bururatu. Behin gure errekarat jauzi egin zuen axuant aleman alimale bat hantxe gelditu zen zabal-zabala gure beilariaren aintzinean, hunen baioneta alde bertze!

Geroneri eta gehienez hola-holako entsei bat edo bertze eginarazi zukuten lau ilhabete horietan aintzindariak. Debaldetan, gutiz gehienak. Atzarriak zauden, gu bezala, alemanak.

Agorrilaren hogoita zortzian atsegin handirekin ikasirik Italia gure alde gerlan sartu zela, paper muthur batzu harri batzueri lothurik, berehala besainka, hek ere ikas zezaten, igorri giniozkatu alemaneri. Alemanez emana ginio ten berria. Ez du iduri hainitz lotsatu zirela, eta frantses ederrenean badakizue zer ihardetsi zau-

kuten bide beraz? «Hemendik goiti ez du balioko bururik hauts dezazuen guri berrien alemanez igortzeko: frantsesa ere badakigu». Zer musika-riak! Bainan heien musikak bezenbat harritu gintuen aleman batek harria guk bezen urrun igortzeak!

Geroxago bertze berri handi bat hedatu zitzaukun betbetan: biharamunean Clemenceau [3] zaharra ethorriko zitzaukula ikusterat. Ez ginuen sinhetsi. Bainan biharamunean han baiginuen gure Clemenceau! Oren pare batez erreka erreka ibili zen, ikusi zituen soldado guziekin elhe egin, pipa eta muntra zer-nahi partitu, eta, alemanak zerbeitez suspixtu orduko, lohiz belhaunetaraino orratua etxerat itzuli... gu erauntsi eder baten azpian utzirik! Segur etzuen holakorik bilhatu gizagaizoak, ez: bainan, lehengoaren gainerat, bai benedikatu zutela orduan zenbeittek! Ez da guti egia halere adin hartako gizon batek, hura ibili zen bezala eta behar gehiago gabe, han ibiltzeko, birikak bere lekhuan behar dituela!

Handik goiti Argona phizten hasi zen gehixago. Alemanek uste othe zuten Clemenceau bethi

han zabilala! Etzen gehiago egunik joaiten alemanekin grenada partida bat egin gabe. Behar handiz? Ez dakigu. Batzuetan aintzindariak manatzen zukuten, eta ber-tzeetan etsaiak berak kitzikan hasten. Hola galdu gintuen hogoita hameka lagun gaixo eta kapitain bat, urriaren lehenean Camp de Mailly delakorat abiatu arte. Gerlako molde berri batzu ikasi behar omen gintuen lehengoan gainerat.

Ikasi othe ginuen deusik? Ez dakigu, denboraren buruan. Dakiguna da bi ilhabete handiz oren goxo onik iragan ginuela han eta inguruetako herrixketan, kanoietarik urrun, jan-edan ederretan, ilhuntzetik argi handiraino nahi ginuen bezenbat loz aseak!

Oren goxo horiek ongi pagatu gintuen haatik hazilaren hogoita bederatzitik harat. Orduan, Ramerupt eta hango atsegin guziak utzirik, mando batzu bezala kargatuak lothu ginen bideari. Eta hamahirur egunez bideak ereman gintuen l'Oise deithu eskualderaino. Zer izerdiak ixuri gintuen Frantziako hegal batetik kasik bertze batetaraino joiteko! Bizkarrerat hartu gintuen euri eta barazuzak bertzalde!

Han ere ez gintuzten gudura berehala deithu. Abendoaren hogoita laua zen Berny-en-Santerre delakoari buruz abiatzeko eta han Hamaseigarrenak zenbeit egun hartan zerauzkan errekek hartzeko manatu zaukutelarik. Eguberri pollita iragan ginuen beraz gure toki berrien ondotik... belhaunetarainoko saltsa ikaragarri batean!...

Eskualde guti ikusi dugu gerlak larrutuagorik orduan ikusi ginuena baino. Herririk ez etxerik etzen nihun gehiago ageri. Bideak, phentzeak eta oro bardintsu ziren, oro kanoiek irauliak. Bertze orduz Verdunen ikusi gintueneri etzuten batere zorrik Sommekoek. Eskuarak dion bezala: *Jatxu eta Haltsu, bigak igualtsu!*

Etzuen oraino hainitz denbora alemanak handik joanak zirela, kukuak makhur jorik. Ez gintazken beraz nola-nahi eta norat-nahi mentura: *minak* izan zitazken gutienik uste zen lekhan. Nahi eta ez, ahal den bezalako geriza lasterregi egin batzuetan behar ginuen eman eta pausatu, zangoak bethi bustiak, hotzak koropilatuak. Eskual-Herrian ez dakigu segurki han gaindi ukhaiten dituzten hotzen berri. Guziz urthe hartan batzu egin zituen ikaragarriak! Ogia bera

zenbat aldiz etzaukuten hormatua ekhartzen!  
Eta hitz dautzuegu ogi hormatua zer den ez  
dakienak ez dakiela zer den jateko higuingarri  
bat!

Bertzalde gure zango gaizok zer etzuten  
ikusitako hango lohi zuri hotzean! Badire gure lagu-  
netan han beren biziko maingutu direnak, eta  
geronek ez dakigu hainitzetan zangoen gainean  
gabiltzan ala taula muthur batzuen gainean!  
Urus oraino gu bezenbat ere ibil ditakeena...

Balio othe du hau ere erran dezagun? Hau-  
rrentzat bederen, ba. Eskualde hortan egun  
batez asto ttipi-ttipi bat hil urren oihan batean  
atxemanik, Edouard Lahirigoyen hazpandar gure  
lagun batek berehala ereman zuen *Sukaldeak*  
deitzen ginuen gunerat. Amodiorekin artatu  
zuen ondoko egunetan, eta gure astoa phiztu,  
alaintso! *Cappy* eman ginion izena, herri hortan  
sortua zitakeelakotz. Gerla guzia gurekin egin  
zuen asto gaixoak eta ibiltzen ginuen herrietan  
guk baino behatzaile gehiago bazuen. Gerla  
ondoan Libournerat Berrogoita Hamazazpigarre-  
narekin ethorri zelarik, harritzeko begitartea  
egin omen zioten orok. Egia erran, haren fama

aspaldi hedatua zen hiri guzian: egunkariak berak zenbat aldiz etziren hartaz mintzatuak! Hain maitagarria zen bertzalde! Aski zuen Berrogoita Hamazazpigarreneko norbeit nunbeit usnatzea, berehala ondotik ter-ter-ter jarraikitzeke. *Gaixo Cappy!*

Bainan gure irakurtzaileek othoi barka dezagutela asto batez hoinbertze mintzatzea. Gure zangoetako gaitzarekin hura dugu Somme deituhu guneko orhoitzapenik handiena...

[1] Louis Dassance (1888-1976). Injenari eta Uztaritzeko auzapeza (1939-1959). *Eskualduna, Herria, Gure Herria, Gure Almanaka* eta beste hainbat aldizkaritan parte hartutakoa. (P.O.)

[2] Lubakietako mortero txikiak. (P.O.)

[3] Georges Clemenceau. (1841 - 1929). Frantziako Gobernu buru izan zen (1917 - 1920), eta Lehen Mundu Gerraren ondorengo bake konferentzian eta Versaillesko itunean (1919) parte hartu zuen. (P. O.)

## VI. Bide-lanetan eta... ostatuan

Le Gallet, Calleux, Le Saulchoy, hirur izen deus handirik erraten ez daukutenak hogoi urt-heren buruan. Eta hor ditugu gure paperetan! Bizkitartean kaskoari arras emana dugu hirur herri horietan kausitu gintuela bide egiten ari *Compagnies Disciplinaires* famatuak. Beren uliekin utzi baigintuen, etzaukun den gutieneko makhurrik gertatu heiekin guru-tzatu ginen lauz-pabortz egunetan.

Bainan bethi ikharan bizi behar denean ez da bizirik eta ez ginuen guti atsegin hartu xori horietarik urrundu gintuztenean, l'Avre ibai kokor baten bazterrerat joanarazteko. Han ez ginuen etsaia zaintzea baizik, higitu gabe.

Ez gintuen haatik bederatzi egun labor baizik iragan ur hegi hortan; bainan, zer elhurak! Jainko maite-maitea! Gure bizi guzian ez dugu hainbertze ikusi nola han denbora gutiz! Etsaiak bakea utzi zaukun, beharrik: *Ligne Hindenbourg* delakoari buruz zoan jada, jauzika, jauzika guri

ohartzerat sobera eman gabe. Ez ginuen beraz sei gizon baizik galdu gune hortan bederatziz egunez. Deusik ez da segurki, bainan sei seme horiek galdu zituzten burhaso gaixoentzat aski halere!

Orok amets gozo bat egina baginuen aspaldi: alemanak gibelat abiatuko zirelarik, gu ondotik jarraikiko ginitzaiotela hek hastean guri egin ziren bezala, irriz eta kantuz, trufa mihiaren puntan, banderak haizeari zabalduak. Eta horra nun, martxoaren lehen egun hetan aintzinat abiatzeko keinuaren beha ginaudelarik, bertze zerbeit galdetzen daukute: Ehun eta Hogoita Hirugarrenarekin lehenbailehen joiteko Méry eta Tricot deithu herrixketarat, han ukhanen ginuela nola josta... bide antolatzen! Zerua gainerat erori balitzauku ez ginen manu hori aditzean baino gehiago harrituko. Guk gerla egin nahi eta bide antolatzen denbora galdu behar!

Aise sinhetsiko gaituzue zerbeit aitortzen badautzuegu: bide hetan ez ginuela haatik hezur handirik hautsi! Ardura ostatuan ginen. Ofizioak nahi othe duen hori?



Tricot herri pollit bat baitzen gutarik aski hurbil, Hazparne eta Ezpeleta bezala dena ostatu, gure irabazi guziak eta gehiago harat zoazin. Egun batez hamar bat eskualdunek deliberaturik elgarrekin afari ontto bat egin behar ginuela, ilhuntzean joan ginen herriko ostatu pollitenerat. Irri pollit bat ezpainetan etxeko-andereak sararazi gintuen barnerat eta zer nahi ginuen galde-tu. Afaldu nahi ginuela, eta ahal zen bezen ongi afaldu oraino. Mila intzirina hasi zauzkun orduan, baizik eta deusik etzutela etxean, edo bederen deus guti, etzitzaiotela errex jateko zerbeiten eskuratzea, eta mila holako. Orotako leloa baitzen hori, ez ginuen amor eman eta hitzartu ginuen bira arroltze erreko zauzkula beraz xingar zathi eder banarekin; ordu arte bi pinta arno xuri edanen gintuela. Hamar eskualdunek zer egin bi pinta arnoren aintzinean, museko manerarik ez badute? Kantuz hasi ginen eman-ahala. Iduripena dugu *Andre Madalen* hasi ginuela lehenik, etxeko-andereak Madalen zukeela menturaz izena. Bainan berehala athea tanpalakoan idekirik, itzuli ginen oro eta han tente etxek'-anderea

ikusi, bi nigar xorta handi matheletan, guri beha eta beha, harritua.

—Eskualdunak othe zaituztet?

—Bai, anderea.

—Eskerrak Jainkoari! Ni ere hala naiz. Gerla hasiz geroztik egun hunen beha nindagon. Oi, Eskual-Herri maitea!

Eta orduan dar-dar-dar bere ixtorio guzia erran zaukun gure aldean jarririk, nola gazte-gaztean Pariserat joan zen sehi, adixkide batek tokia bilhaturik, nola Parisen ezagutu zuen ostatu hartako semea, nola Xuberoko herrixka batean ezkondu ziren, nola aitamek geroztik ostatura utzirik hek hartua zuten, eta hau, eta hura. Gu jaten hasi eta ere, ixtorio kondan ari zaukun oraino. Emazte gaixo haren atsegina!

Erran gabe doa arrats hartan afari onsko bat egin ginuela, xuberotarrak eskualdunen-tzat xingar eta arroltzez bertzerik atxeman baitzuen... hasteko intzirinen gatik! Eta, gehiago dena, sosik etzaukun hartu, gure Eskual-Herriko kantuekin aski jende bildu giniola ostaturat! Alta, untzi gehienak milikatu giniozkan, ba!

Denbora hortan, alemanak *Ligne Hindenburg* [1] hartarat biltzen ari ziren. Frantsesak ere bertze manerarik hartu behar zuten beraz. Horra zertako gerla hastean ezagutu gintuen xokho batzueri buruz abiarazi gintuzten martxoaren hogoita bortzean. Sei egunez elhur erauntsien azpian St-Just-en-Chaussée, Liancourt, Creil, Senlis eta Nanleuil iraganik, lehertuak jo ginuen Sains-Morainvillers delakoraino.

Herri hortan ongi pausatu eta, apherilaren bortzean jauzi batez joan ginen Bezu-St.-Germain delakorat: zortzian Villemoyenne ikusi eta goratu ginuen ederki: Chéry-Chartreuse hamabitik hamalauerat.

Artean erran dezagun, ikusten duzue ez dela gerla bezalakorik lutelestiaren ikasteko. Lutelestia? Ba: erdaraz *la géographie* erraten diogu lutelestiari.

Hamabortzean egundaino bezala bidearen gainean ginen.

Zer atseginekin ikusi gintuen St-Gilles, Baslieux, Blanzly-les-Fismes, Glennes eta aspaldi ezagutzen gintuen bertze herri batzu. Berillon etzen arras xehatua oraino: han egin genuen lo.

Eta huna apherilaren hamaseia. Oldar handiaren eguna, diotenaz. Argia gabe aireetan zabil-tzan munduko airetako [2] guziak, batzu gurutze beltz bat azpian, bertzeak Frantziako hirur koloreekin. Marchand [3] jeneral famatuaren soldado beltzek behar zuten lehen jauzia egin. Heien ondotik behar ginuen, guk, suan sartu.

Bainan baduk hoberik! Egun guzia leze beltz batzuetan iragan ondoan nundik zer ikasiko ginuen, horra nun arratsari buruz berri tzar bat ekartzen daukuten: gure kanoiek uste zuten baino lan gutiago eginik, soldado beltzek etzuta etsaia aski urrun fueratu. Biharamuna leze beretan iragan ginuen beraz eta ondoko gauean, Marchand eta beltzak beren lanari utzirik, itzulika-itzulika bidari lothu. Zer euriak ari zituen? Hirur egunen buruan Craonnelle sudurraren aintzinean ginuen.

Ezagun xahar bat Craonnelle ere segurki. Bainan nola hondatua guk mila bederatzi ehun eta hamalauetan ikusiz geroztik! Ageri zuen han gaindi ibili ziren soldadoak etzirela bethi geldirik egon. Funtsean, etxe guziak oraino xutik ikusi bagintu ere, frogatzeko askiko zen bide bazte-

rreri behatzea: alde guzietan etzen gurutzerik baizik ageri! Taulazko gurutze ttipi batzu izen xoil batekin! Zenbeit aldiz, izenik ere ez!

Gurutze batzu izenik gabe? Nola ditake hori? On da hemen bi hitzez erran dezazuegun. Hilari ez bazen seinale zerbeit atxematen, batzuetan nola eman izen bat kanoiek phorroskatu haragi phuska heieri? Hilak berehala altxatzen ahal izan balire, kanoi kaldi berrien phazka utzi gabe, nihor etzen galduko sekulan, edo bederen nihor guti galduko zen. Hilak etzitazken berehala altxa bethi, horra egia. Eta horra zertako burhaso gaixo batzuek ez duten egundaino beren haurren berririk ukhan! Ez ukhanen!

[1] 1916an, aleman armadak Frantziako Ipar Ekialdea babesteko eta kontraerasorako eraiki zuen gotorlekuaren izena, gudu-lerroaren atzetik zegoena. (P.O.)

[2] Airetako: hegazkin. (P.O.)

[3] Jean-Baptiste Marchand (Thoissey, 1863 - Paris, 1934) Afrikan espedizio famatuak egina eta larriki zauritua Champagnen 1915eko irailean. (P.O.)

## VII. Maiatzaren bortza eta seia

Hogoita batean berritz etsaiaren parerat joan ginelarik eta berrehun bat metretarat hurbildu, ez ginen, menturaz uste dugun bezala, zalapartan tiroka hasi. Gure haintzurreri lothu ginen berehala, eta oro. Iguzki xoragarri bat agertu zen hainbertzenarekin. Horri esker, zer lanak egin gintuen hantxe hamar bat egunez! Alemanak etziren haintzurtzen ari denbora hortan: erran ditake etzauzkula ixiltzen. Lagun frango hil zaukuten.

Zertako ez ginioten ihardesten? Maiatzaren lehen egunetan egin gogo ginuen oldarrarentzat, zer gerta ere behar baigintuen aintzineko egunetan kanoiek hala itzuli phurdikatuak ziren erreka hek hein bat bederen erreberitu: horra! Plateau de Vauclerc behar ginuen, guk, etsaiaren aztaparretarik khendu.

Maiatzaren laua hautatu zuten aintzindariak oldarra hasteko. Airetako batzu aski goiz oharturik frantses kanoiek oraino lan gutisko egin zute-

la gure aintzinean eta zokho frangotan, geriza ederretan, zimentaz eginikako geriza ederretan, alemanak ongi gure beha zaudela, ez ginen higitu. Gure eskuinean, arra-tsaldeko lauak ondoxean, bertze soldado fran-tses batzu oldartu ziren haatik etsaiari eta, begiak idekitzeko astirik utzi gabe Craonneko malda hartu zioten.

Gure erreketarik xoratuak beha egon ginitzaioten lagun gaizoeri eta, nihork manatu gabe, oro esku joka hasi ginen herriko pilota partidetan bezala maldaren punta-puntan frantses banderaren landatzen ikusi ginuelarik soldado bat. Jauzian oro aintzinduak zituen. Ondoko egunetan ikasi behar ginuen bakarrik soldado hura aphez eskualdun bat zela, sortzez milafrangarra. Egungo egunean Afrikan aphezpiku da: Mgr. St-Pierre [1].

Oi, bortzean argiko aditu gintuen orroak! Gu baino lehen iratzarririk, goitika zalapartaka ari ziren alemania guziko kanoiak. Hileri zainak inharrosi ez baziozkaten goiz hartan, sekulan ez diozkate inharrosi!

Bederatzi orenetan abiatu ginen alemaneri buruz, othoitz labur batean gutiz gehienak Lur-

deko Ama Onari gure buruak fidaturik. Hiltzeaz nola orhoitzen den holakoetan gizona, munduko irri, phesta eta jauxietan aisegi ahanzten badu ere!

Guk ez dugu gerlako aski jakitate phondutik phondurat bi egun horietako gudueri jarraitzeko. Laster eta laster gal gintazke boyau [2] Camberg, boyau Stauffen, boyau Neckar, boyau Ranstadt eta bertze holako erreka batzuetan. Badakigu haatik izen horiek guziak alemanez direla. Eta nola maiatzaren bortzean edo seian Stauffen eta Ranstadt eta orotan sartu baiginen, alemanak garhaitu gintuen. Ausiki eder bat egin ginuen heien eremuari. Nahi bezalakoa? Ez naski. Bereziki zimentaz eginikako bizpahirur gerizek ez gintuzten hurbiltzerat baizik utzi. Bazinakite zer odol errekak zoazin geriza horien aintzinean, bortzean, eguerdi gabe jada!

Bizpahiruetan etsaiari iduritu zitzaion naski lotsatuak ginela, odol hustuak ez baginen, eta guk hartu lurak berritz beretzeko jauzi egin zaurkun gainerat. Hamar urhatsetaraino errabian arizanik tiroka eta grenada ukaldika, azkenean baionetekin urrundu gintuen alemanak aldi bak-



hotx. Bainan etzuten aise etsitzen eta ezin bertzela eginak sar arazten zituen beren gerizetan segurki azkenean! Aitortu behar da gerlari handiak direla alemanak eta heien garhaitzeko ez dela nor-nahi aski! Ez, futxo!

Hirur ehun hilez goiti ukhan ginuen gudu horietan, eta bortz ehun kolpatu hurbil-hurbila.

Hemen egia erran dezagun zabal-zabala orai: bi egun horietan gizon frango galdu ginuela funts handirik gabe eta debalde, zimentazko geriza heieri buruz! Kanoiek beharko zituzten lehertu lehenik, nun ziren airetakoek ongi erakutsi ondoan, eta gero guk phiko ondo batzu bezala biltzen ahalko gintuen min gutirekin. Hola, hamar lagunetarik zortzi etziren eroriko. Egia erran, hala beharra bazen!

Nahiz bi egun horietan aski egiteko ukhan ginuen gure buruarekin... orok bezala, hainitz behatu ginioten gure laguneri. Harritu gintuzten. Aspaldi baginakien, froga hoberenak emanak baitzauzkuten, hainitzen egiteko on zirela: ez ginuen halere uste hoinbertze egin zezaketela aire pozoinatu eta obusa erauntsien kontra. Jainkoaren kreatura guzietan segur bat ez da

gizonak bezenbat bihotz duenik ez-eta ere gizonak bezenbat jasaiten ahal duenik! Zer eginik eta zer jasanik etzituzten azkenekotz begiak hetsi hainbertze eta hainbertzek han! Nahiko gintuen hemen han hil zauzkun eskualdun lagun guzien izenak lerro-lerro ezarri, haur guziek gogoz ikasteko: ondikotz, oro ahantziak ditugu salbu batena: D. Larretche guzien artean maite ginuen laphurtar ixil eta goxo bat.

Han kolpatu zaukun ere lagunetan hoberen-hoberena: J. Landetcheberry aphezgeia. Ilhabete baten buruko gibelat ethorria ginuen haatik, erdi-sendo, bainan begitarte xuri oraino, bertze zenbeit bezala eritegietako bizi goxoari aztaparka lothu gabe. Alta, bere hamabortz edo hogoi mila arimekin Fontainebleau hiri gustagarria eta lakhet-lekhu litake ba!

Maiatzaren seiean kolpatu zen I. Landetcheberry. Gerla aintzinean Baionako apheztegian herritar bat baitzuen aphez egiten ari zena hura ere, Beaurieux derizan herrixkan atxeman zuen, bera bezala kolpatua, artatzerat joaki. Maiz gertatu othe da herri bereko bi aphezgeiak bi gunetan egun berarekin kolpatzea? Naski ez. Bigak

sendatu ziren Jainkoari esker. Bat Garroko ikas-  
tegiaren buruzagi da, bertzea Baionan eskola  
ematen ari. Bainan herritarrak direla erran badu-  
gu ez othe dugu erran behar zoin herritakoak?  
Landibarrekoak dire. Eta, hasian hasi, lehenaren  
izena salatu dugunaz geroz, sala dezagun orobat  
bigarrenarena: J.B. Lompageu.

Hogoitabat aintzindari eskas, hamar hilak eta  
hameka handizki kolpatuak, Berrogoita Hama-  
zazpigarrena gehiago etzagoken etsaiaren ain-  
tzinean. Bururik gabe, gorphutzik ederrena deus  
ez da. Erreka latzgarri hetarik atheratu gintuzten  
beraz eta pausatzerat jautsarazi inguruetako  
herrixka batzuetarat. Han ukhan ginuen atsegin  
handi bat: egun batez Goñi kanboarrarekin  
eskuin eta ezker aire hartzen ginabiltzalarik,  
*Baionako Territorialak* ikusi gintuen. Gure lagun  
gaizoa etzen guti harritu, gutienik ustean, bere  
anaiarekin bide gurutze batean buruz buru egin  
zuelarik! Nola elgar besarkatu zuten bi anaiek!  
Familia handi batetako zaharrena eta gazteena  
ziren eta ez dugu uste gerla hasiz geroztik elgar  
ikusia zutela...

Baslieux eta Maizy jada aipatuak ditugu biz-pahiruetan: harat ethorri zitzauzkun errearoaren hamabi edo hamahiruan beribil handi batzu, hartu eta Alsazako eskualderat eremateko. Gure odol gorrienaz busti, bietan busti guneak ez gintuen gehiago ikusi behar.

[1] Jean Saint-Pierre: euskal idazlea (Milafranga, 1884 - 1951). I. Mundu Gerran, Zerbitzari bezala, gudu-lerrotik gerraren berri idatzia ematen ibili zena. (P.O.)

[2] Boyau: (*fr.*) lubakiak elkarren artean lotzen dituen bide estua. (P.O.)

## VIII. Ballersdoff eta Champagne

Ez dakigu Alszakoko eskualde guzian baden Ballersdoff baino herrixka pollit eta gustagarriagorik. Hartan gelditu ginen, herri eta eremu frango bidean ikusirik. Hango jendea han bizi zen bethi: jende on bat, soldado frantsesari arras atxikia. Nihork nihun ez dauku behinere begitar-te hobeagorik egin. Xaharrek bereziki etzakiten guretzat zer egin. Gazteekin ere ederki elgar aditzen ginuen haatik, nahiz frantsesean baino trebeago ziren oraino alemanean. Bizkitartean etxe gehientsuetarik norbeit bazen ba Alemaniako armadetan!

Atxiki eta zaindu behar gintuen errekek etziren handik urrun: hiruzpalau aneurkin edo kilometretan goretetik. Gure alanbre sailetaraino lur guziak ibiliak ziren. Hortarik ageri da etzela gune gaixtoa. Hain guti nun egun bethean laborariak beren ontasunetan ikus baitzitazken, hain-tzurra edo sega bizkarrean! Alemanek etzuten oraino uste gerlarik galdu behar zutela eta etzi-

tuzten aintzinean berenak zituzten eskualde hek funditu nahi. Egun goxorik iragan ginuela han gaindi erratearen beharrik othe dugu beraz? Bi ilhabete handiz ez ginuen berrogoita hamar bat gizon baizik galdu, eta hil guti horietan...

Frantses eta alemanen errekek etziren bertze guneean bezen hurbil elgarretarik: lauzpabortz ehun metretan. Egunaz ez ginezaken min handirik egin elgarri: kanoiak ere lo zauden ardura. Gauaz egon behar zen erne, nihor ez hurbiltzerat uzteko. Eskualdun bat bederen badakigu gerla Alemaniako goseteian bururatu duenik, bere zaintzale geriza ttipian lokharturik.

Altkirch deithu herri handisko bat baginuen begien aintzinean. Hango karriketan gure largabixtekin noiz-nahi aleman soldadu batzu ikusten gintuen harat eta hunat ibilki: egundaino ez diotegu tiro bat igorri, bethi inguruetan jostetan ari zaizkioten haur gaixoak hil edo kolpa beldurrez. Guk bezenbat bihotz ukhanen othe zuten alemanek kasu berean? Beldurtzeko da ezetz.

Hala-hala hango eliza-dorre ederreko leiho batek zer tiro parrapatak ez ditu hartu!

Zaintzale batzu baziren han, noiz-nahi gure airetakoeri tiroka ikusten gintuenak. Ez dakigu behinere bat atxeman dugun haatik, leioa zabal izanagatik.

Holako gune on eta goxo baten uzteak min eman zaukun. Nork ez du aise sinhe-tsiko? Baina gerla batean ez dago bethi bereri bakean ez-eta erdi bakean bizitzea. Champagnarat joanarazi gintuzten beraz bidez-bide. Belfort, Chaumont, Bologne, St-Dizier, Bevingny eta Givry direlakoetan gaindi. Oinetako hoberenen higatzeko bide aski, segur! Hazparnen eginak zitazken gureak: iraun zaukuten.

Champagnan bada herrixka bat Souain deitua, Suippes herri-nausiaren aintzinean, Tahure gerla denboran hainitzetan eta handizki aipatua izan den bertze herrixka bat baino ezkertxago: hango erreketan egon behar ginuen borts ilhabete. Nihun sekulan ez dugu han gaindi bezenbat hil-herri ikusi. Aise ageri zen noizpeit gudu ederrik izan zela han ere.

Eskualde hortan galdu behar ginuen ondoko egun batez gerla hastetik bethi gurekin edo gure inguruetan zabilan erreximendu eder eta maita-

garri bat: Baionako Berrehun eta Berrogoita Bederatzigarrena. Italianoek amor emanik, Italiar bat igorri zauzkuten hortako herritar gehienak *Chasseurs* direlakoan jauntziekin, kontrabandixtak mendietan trebe direla.

Berrogoita Bederatzigarrena gurekin utzi zaukuten halere eta Champagnan noiz-nahi gurutzatzen ginen hango adixkide onekin herriaz mintzatzeko, bi mus partidaren elgarrekin egiteko... edo xahako zahar zenbeiten husteko. Holarako batez egin gintuen zuhaitz motz batzuen gerizan Blazy Uztaritzeko jaun aphez-nausiaren eza-gutzak. Zer aphez xehe eta bihozduna!

Etzen zalaparta handirik gune hartan orduan. Egun gehienak gure haintzurak eskuan iragan-eta, gauari buruz hartzen gintuen bakarrik xixpak eta grenadak, edo alemanak gutaraino heltererat ez uzteko, edo geroni aleman bat edo bertze gure sareetar bat bilduko ginuen ikusterat joaiteko.

Hola galdu ginuen hazilaren hiruan gure axuantetan famatuena. Etzen ordu arte gizon horrek egin etzuen eskukaldi ezin sinhetsirik eta guziek oraino gogoan ginuen nola Plateau de



Vauclerc hartan berak, berberak, hamalau aleman alimale preso hartu zituen eta tete batzu bezen umil gure erreketan otxatxo sar-arazi! Harritzeko biria zuen. Behinere deusek lotsatzen ez dituen gizon hetarik bat, hots. Champagnan atxeman behar zuen bere azken orenak. Ilhundu orduko hamar bat soldadorekin joan zen parrez-parreko lehen errekek bederen ikusi behar zituela eta hango zaintzaleak preso hartu. Etsaiaren alanbreetan bide bat eginik, ororen aintzinean iragan zen eta, bi grenada eskuan, aleman erreketarat jauzi egin *Altxa eskuak* oihu egiten zuelarik han zitazkenari. Bi ximixtek ihardetsi zioten gau beltzean eta hantxe erori zen gehiago ez xutitzeko. Ez dakigu lagunak nola egin zuten gorphutz haren gibelat ekhartzeko alde guziatarik hasi ziren tiro parrapatekin...

Hazilaren hemezortzian liotinant bat harat bererat joan zen gau beltz bati esker. Berrogoi soldado bazituen berekin. Alemanen sathor zilho guziak ikhertu zituzten, bainan, zerbeiti oharturik, etsaiaren beilariak nunbeit kukutu ziren,... eta gure lagunak eskuak hu-tsik itzuli etxerat.

Eta bertze zenbat holako itzuli ez dugu Champagnan egin! Astean bat gutienetik. Biga gau berean egiten ere gertatu izan zauku eta lau aleman gurekin ekhartzea!

Alemanak etziren gu baino gutiago nahi. Hek ere noiz-nahi oldartzen zauzkun. Etzuten haatik behin baizik guretarik norbeit ereman, eta aldiz frangotan gure bizpahirur lagunetaraino utzirik itzuli behar izan zuten!

Holako aldietan baginakien haatik biharamu-nean argiko zer ukhanen ginuen: obusa erauntsi bat ederra. Urus baiginen oraino aire pozoindatuak heldu etzauzkularik!

Horra nun eta nolatsu, Eguberri-Urtatsak elhurpean iraganik, hasi ginuen gerlako azken urthea: mila bederatzi ehun eta hemezortzia. Nihork haatik etzuen oraino holako ametsik gutartean: guk irabaztea baizik ez ginuen gehi-go gogoan, baiginakien denbora guretzat ari zela lanean, eta alemanek nihundik etzuten oraino erakusterat ematen amor ematerat zoazila. Gehiago dena, azkartzen ari zirela iduri zuten kasik eta fama bat hedatzen hasia zen erreka erreka gure kontra laster oldar baten egiterat

deliberatuak zirela. Bainan ez gintuen Champagnan atxeman behar oldar horrek. Martxoaren hogioita batean, kanoi guziak bizpahirur egunez ororen lehertzen arizan ondoan, hasi zelarik, gu Champagnatik aski urrun ginen jada pausatzerat joanak. Akhabo gintuen haatik pausu eta egun ederrak guk ere gerla bururatu arte. Su handia lothua zen.

## IX. Noyon eta Mont-Renaud

Georges Gaudy gure adixkide handi bat da: gerlan ezagutu ginuen. Ahal zen guzietz elgarretaratuak ginen eta elgarrekin ginabiltzan, politikan eta gainerateko guzietan asmu berak edo bertsuak baigintuen. Gerlaz geroztik ere ikusten izatu zauku. Holako adixkidan-tzak deusek ez ditu hiltzen, ez urtheak, ez urruntasunak. Bada, Georges Gaudy denboran gerlari on bat balinbazeu, orai liburu-egile handi bat da. Gure jakinean baditu jada, aski gaztea delarik oraino, borts liburu xoragarri agertaraziak: hautarik bat *L'Agonie du Mont-Renaud* derizana. Erdara dakiten guziek atsegin zorrotz batekin irakur lezaketen liburua, hain da eder eta unkigarria! Eskuetan ukhan dugu, gure adixkideak berak igorririk. Ehun edo berrehun herritarrerik irakur-arazi dugu, prestaturik. Erran gabe doa azkenean norbeitek ez daukula itzuli. Prestatzen diren liburu guzien zortea omen da. Jakin baginu! Ezen orai liburu horrek laguntza ederra egingen zaukun errateko ditugunen aski moldean errateko. Gogoz ari

beharko dugu edo paper muthur ttipi batzuen laguntzarekin doidoia. Berrogoita Hamazazpigarreneko gerlari ohi zenbaitek *Eskualduna* irakurtzen badute, barka dezagutela gure xuhurtzia...

Martxoaren hogoita hiruan sartu ginen beribil handi eta zahar batzuetan eta Epernay, Mareuil-sur-Ourcq, Crepy-en-Valois, Compiègne, Montdidier eta ez dakigu nun gaindi, zoin aldaxkaren gainean geldi ez dakiten xori errebelatu batzuiduri, itzulika ibilirik, hogoita hamazazpi orenen buruan Noyon deithu hiri ederreko inguruetan pausatu. Jada hango jendea ihesi zolan, harritua. Anglesek amor emanik, alemanak gainerat heldu zitzaizkoten alabainan. Ez dugu uste Beljikan berean deus lotsagarriagorik ikusi ginuela ahure xahar bat, bere emazte xahar ezindua eskorga batean etzanik, hari pusaka baino! Astelehen bat zen naski, eta hogoita bortza.

Eguerdi alderat manua ekharri zaukuten lehenbailehen joiteko Noyon baino haratxago, etsaiak bethi hurbiltzen ari zirela. Jatekoaren egiten ari ginen bide hegian: tupina guziak ostikoka uzkailli gintuen eta gerrikoak gehixago tinkatu. Erretzeko bero bat bazen. Noyon iragan ginuen

saltegietakoko edergailueri hainitz behatu gabe, eta Baboeuf izena zuen herrixka bati buruz abiatu, etsaia han geldituko ginuela athe eta leiho guzietarik tiroka. Baduk hoberik! Alemanak gu baino lehen harat helduak ziren eta athe-leihoe-tarik guk hek gelditu beharrak, hek gelditu gintuzten gu! Haste ona.

Hain xuxen gure armadako jenerala harat ethorriarik, etsaieri ihardetsi gabe berehala gibelat itzultzea manatu zaukun, gostako zena gosta Noyoneko karrketan ahal zen bezenbat denbora atxikitzeko. Horra zer xedetan gi-nauden gau beltzak hiriaren erdian atxeman gintuelarik. Etxe andana bat bazen jada sutan.

Su horiek orotarar hedatzen zuten argiaren gatik, alemanak etzitazken guk ikusi gabe hurbil. Kantuz hurbildu ziren hamekak ondoxean. Etxuten uste nihor bazela karrketan. Menerat ethorri zireneko frantses xixpek beren ametsetik irartzar-arazi zituzten segur! Kantuen ondotik nigar eta karrasiak entzun gintuen...

Bainan, jada errana dugun bezala, alemanak gerlari hautak dire. Behin gibelatzerat bezala egin eta, berritz laster ikusi gintuen guri buruz

heldu baionetak eskuan. Tiro parrapata eder batzuek han berean itzatu zituzten gutiz gehienak, bethikotz.

Handik laster bertze batzu hiriaren bertze buruan gure lagun batzueri agertu zitzaizkoten eta urrundik oihuka hasi Anglesak zirela, othoi uzteko hurbiltzerat. Beharrik begi eta beharri erneak zituen beilatzen han zagon liotinant eskualdun batek, Aignerren Sarako jaun errientak. Laster usnatu zen jukutria eta alemaneri bere gizonen baioneten puntak jasta-arazi.

Hamar, hogoi aldiz oldartu zitzauzkun oraino gau hartan alemanak: argia hek baino lehenago sartu zen Noyoneko karriketan. Ez, etzen etsaia hiriaz jabetu, guk aintzindarien manuz utzi ginio-telarik baizik, eta zortziak alderat Dauvé jenerala berbera ethorri zi-tzaukun laudorio handiennen egiterat Noyon hola zaindurik, eta othoi bihotz berarekin Mont-Renaud zaintzea galdetu zaukun, Pariseko gakhoa zela...

Haran luze eta aberats baten aintzinean mendixka gothor bat, horra zer zen Mont-Renaud hori. Alde guziak ageri ziren puntatik, eta hartuko zuenak hogoita hameka eta eskua

bazituzken eskuin eta ezker ibiliko ziren tropen zaintzeko... eta irrisku handirik gabe bere kanoiekin zafratzeko. Beha beraz zer balio ikharagarria zuen bai frantsesentzat bai alemanentzat mendixka horrek! Bai-eta punta-puntan zeruetan goiti zoan jauregi dorredun batek! Lasterka joan ginen beraz mendixkarat eta han landatu.

Etzen alemanik agertu goizeko hamarrak arte. Gau hartako zauri minen artatzen egon ziren ordu arte, dudarik gabe. Mendixkaren bertze aldean higitzen ikusi gintueneko, tiroka hasi ginitzaioten. Bainan tiroek batere lotsatu gabe, bide guzia hilez emokaturik ere, kasik jauregiraino ethorri ziren eta handik trufaka hasi *Franzosen kaput* eta *Franzosen kaput!* [1] Bainan gure baionetek sar-arazi ziozkaten trufak eta harat hago joanarazi laster...

Hainbertzenarekin horra nun ordu arte ixilik zauden aleman kanoiak zirurika hasten diren eta, sekulako grenada meta baitzen mendixka baino beheraxago Passel deithu herrixkan bildua, hari su ematen dioten. Ikusten duzue orduan gure planta: aintzinean etsaiak gero eta



errabia handiagoan oldarka, gibelean mila grena-  
nada bederen alde guzietarat zapartaka! Gerlan  
ibili denak baizik ez dezake amets gure lana.  
Gutik egin zuen egun hartan oro ez baiginen han  
garbitu eta alemanek ez bazuten hainbertze  
gutiziatzen zuten Mont-Renaud hartu!

Arratsaldeko lauak alderat, mendixka gibe-  
ko su ikharagarriari oharturik, bi aldetarik ingu-  
ratu nahi izan gintuzten etsaiek. Tiroka phorros-  
katu gintuen eta etzuten urhats bat egiten ahal  
ukhan... aintzinat.

Orduantxe aditu ginuen egun guziko lehen  
frantses kanoikaldia. Zer atsegina egin zaukun!  
Eta zer esperantzak sor-arazi zituen gure biho-  
tzetan hain ongi ezagutzen ginuen xixtu mehe  
harek! Ezen orai baginakien ez ginela gehiago  
bakerik eta, galdetu orduko, Tarbeko Hogoita  
Laugarren famatuak ederki lagunduko gintuela!  
Eta hola ethorri zen gaua, alemanak sudur pun-  
taren agertzerat berritz menturatu gabe...

Biharamunean, beraz martxoaren hogoita  
zazpian, argiko kitzikan hasiak gintuen haatik  
berritz, han edo hemen nun atxemanen zuten  
artexka bat jauregiraino bederen lerratzeke, eta

zazpi orenetan meta osoak gainean gintuen. Gure tiro parrapatek behin lotsatu zituzten eta zortzi orenak arte etziren gehiago higitu. Hobeki eginen zuten orduan ere geldirik egon balire. Agertu guziak kalitu gintuen terrepente.

Bainan min ematen zioten gu nausi uzteak eta, berritz ere oldartzeko, xokho batean elgarretaratzen ikusi gintuen ilhunari buruz. Laster hutsarazi giniozkaten lekhuak. Bardin-bardina, zazpiak ondoxean.

Hogoita zortzian ez ginuen hoinbertze kalapita ukhan eta alemanak etzauzkun behin baizik oldartu. Beren kanoieri batere laguntzarik galde-tu gabe, ustez eta hola lo atxemanen gintuztela, goizeko zortzi orenetan herrestaka hurbiltzen hasi zitzauzkun. Berehala frogatu ginioten ongi iratzarriak ginaudela eta urrundu ziren... salbu gure aintzinean zabal-zabala gelditu ziren berrogoita zenbeitak...

Are maltsoago egon ziren hogoita bedertzian. Bainan gauaz aditu harrabots batzuetarik iduritu zitzaukun hogoita hamarrean zerbeit ikusi behar ginuela. Hala-hala gertatu zen. Zazpiak eta erdietako jada baioneten puntan fuera-

tu behar izan gintuen, hogoita zenbeit gizon animale preso harturik. Ez, gure bizian ez dugu halako gizon handirik ikusi!

Bederatzietan lehenik, hamarretan gero berritz beren egin ahal guziak egin zituzten jau-regirat heltzeko. Debaldetan.

Eguerdi alderat aleman airetako bat kasik buruen gaineraino jautsirik, airezkaria tiroka hasi zitzaukun. Gosta zitzaion bere kopeta, berehala gure tiroak mustuilka lurrerat aurdiki baitzuten. Denboraren buruan ongi gogoan dugu oraino airezkari haren izena: *Max Linder*. Hain xuxen denbora hartan bazen zinema horietako komediantetan izen hori izengoitizat hartua zuen bordeles bat eta hunen anaia gurekin ibilia zen gerla hastean: Leuvielle liotinanta.

Handik goiti, zer bakea hirur egun handiz! Aphirilaren hirua arte aleman bat etzen higitu. Orduan haatik zer tropak oldartu zitzauzkun arratsaldeko hiru orenetan! Tarbeko adixkideen laguntzarekin phorroskatu gintuen.

Ederki da, egin ginuen bezala, behar hortako mendixka baten zaintzea eta etsaia tokiaren gainean itzatzea: ederkiago, ahal bada bederen,

handik urruntzea. Horra zer lani lothu ginen hirutik lauerako gauean. Ilhunari esker soldado erne batzu aintzinat menturatu ziren, eskuin eta ezker ibili nun zer ikusiko edo adituko zuten, eta argia gabe berritz kargatuak itzuli Bussy gure koronelaren ganat.

Izen hori lumaren puntarat ethorri zaukunaz geroz, iduritzen zauku Bussy gure koronela bezalako gizon bati *Eskualdunak* berak zenbeit hitz zor diozkala. Aintzindari handienetan ere ez dire dotzenan hamahirur holakoak. Bertze bizpahirur koronelen ondotik ethorri zitzaukun Berrogoita Hamazazpigarrenerat Bourg-et-Comin hartan ginelarik oraino. Adin bat iduri zuen ordukotz. Gerla Afrikan ikasirik, sekulan etzuen gudu bat urrundik segituko: bethi han zen bere soldadoen erdian. Ikusi izan dugu oro baino aintzinago ere irrisku guzien gatik. Soldadoak maite zituen eta etzituen nolazpeitka manatu nahi. Guk ere maite ginuen. Baginakien sekulan etzuela odol xorta ttipiena debaldetan ixur-araziko. Orok begiak itsutzen gintuen beraz harek zerbeit manatu orduko eta norat-nahi baginoazin, lorietan ez bazen, fidos gutienetik.

Gerla gurekin bururatu zuen. Hogoï urthe badu horrek, bainan gutarik nihork ez du Bussy koronela ahantzia. Ez du hanbat denbora oraino eskualdun zenbeitek hitzarturik makhila eder bat Larresoron eginarazi ginuela eta gure koronel maiteari igorri. Ordainez hitz bat igorri zaukun berehala eta aithortu egundaino deusek etziola halako atseginik egin nola dohain horrek, eta hitzeman hil arte bihotzeko xokhorik hoberenean atxikiko zituela bethi Eskual-Herriko bere gerlari ohiak...

Aphirilaren lauean ez ginen oro hilak izan bagine baino gehiago higitu: alemanak lokhar-tzea nahi ginuen. Bortzean bortz orenetako oro xutituak ginen haatik eta zenbeit aintzinat abiatuak. Bide frango egina baginuen etsaiak guri ohartu zireneko. Guk baino lo pisuago othe duten alemanek?

Jauzi ederrena bi liotinant eskualdunek egin zuten beren gizonekin: Montalibet mauletarrak eta Lesgoirres Haltsukoak. Urrunago joaiteko harrasi handisko bat iragan beharko zuten, bainan etsaiak jada haren gibelerat bilduak ziren

eta handik tiroka hasiak. Nola hurbil? Etziren menturatu: etzitaken.

Seiean, argi hastean Lesgoirres liotinantak harrasiari buruz bortz egin ahal egin zituen. Kanoia ttipi berezi batzu galdeturik, egiazko erauntsi bat igorri zuen harrasiaren gibelean tiroka hasiak ziren alemaneri. Oro debaldetan. Etzen hurbiltzen ahal izan bezperan baino gehiago. Eta horra nun hainbertzenarekin inguruetakoa aleman kanoia eta *minenverfer* guziak marrumak hasten zauzkun! Berehala ezagutu ginuen zertarat ginoazin: alemanek oldartu nahi zuten. Oren osoak etziren kanoikaldiak ixildu eta jauregi eder hura azken harriraino lurrean zen jada, etsaiak zeraukaten eta hurbiltzen ikusi gintuelarik mendixka guzia zeraukaten erhauts eta kheatren erdian. Konda-ahala baino gehiago baziren ukhondoa ukhondoari: guk lurrerat aurdikitzen ginuen batentzat, biga edo hirur berehala gure xixpen puntan han ziren, irri tzar bat ezpainetan, lurretik atheratu debru batzu iduri. Amor emateko orde, arratsaldeko bi orenetan harrasiatik haratago igorriak gintuen eta geroni harrasiaren kontra landatuak. Ez hainitz denborarentzat,

ondikotz! Lauak gabe berritz handik urrunaraziak gintuzten, bati hamar oldarturik. Orduan, hasian hasi, nahi izan zuten eremu gehixago hartu: gure baionetek etzituzten utzi.

Aphirilaren zazpi-zortzi-bederatzietan zalaparta guti: kanoiak arizan ziren gehienik. Ageri zuen oro nekhatuak ginela. Hamarrean haatik lagun batzuek ustegabeko jauzi bat egin zuten argi hastean harrasiraino eta, gainerateko guziak hilik, bi aleman preso hartu. Urrunago ere itzuli bat egin zuten eta bertze bi aleman berenkin ekharri. Arratsaldean alemanen aldi. Ederki bermatu ziren bizpahirur aldiz harrasiari buruz. Debaldetan: aldi baxhotx hondatu gintuen eta gibelat igorri.

Aphirilaren hameka-hamabietan sobera harat hunat eta kalapita izatu zen oro gogoan hartzeko eta orai hemen errateko. Hamar aldiz bederen alemanak ondo-ondoraino ethorri zitzauzkun erho batzu bezala. Erho batzu... edo gizon edan batzu bezala! Etzaukuten zehe bat lur khentzen ahal izan, bi egun horietan gainerat igorri zauzkuten grenada meta eta aire pozoin-

datu guzien gatik. Egun eta oren ikharagarriak  
segurki. Handiena ikustekoa ginuen!

[1] Frantsesak akabo! Frantsesak akabo!  
(P.O.)



## X. Aphirilaren hamalaua eta ondoko egunak

Hogoi bat egun bazuen jada gudu latzgarri horrek hasia zela. Aintzindariak errana zaukuten Mont-Renaud Pariseko gakhoa zela. Ez ginioten etsaieri utzi ez utzi nahi gakho hori. Gutik egin zuen halere aphirilaren hamalauan.

Goizeko zazpiak gabe hamar bat airetako aleman, rruuu-rruuu-ruuuu, gure buruen gainean itzulika han zabiltzan. Zazpi orenetan hasi ziren kanoiak. Handi eta ttipi, orotarik bazen. Nihun ez dugu egundaino hoinbertze eta hoinbertze aditu batean. Etziren luzez arizan. Oren laurden baten buruko ixilduxe ziren. Orduan agertu zauzkun etsaiak. Aintzinean, debru batzu bezala, *flammenverfer* direlako su igortzaile lotsagarriak beren mitriolatzeko tresnak bizkarran; ondotik sekulako grenadari sail luzeak. Kantuz eta irrintzinaka ari ziren, jada bertze nunbeit aditu gintuen bezala, edanak oro. Lehenik bidean traban eta kausitu zituzten frantses gaxoek etzuten luzez iraun: erreak erori ziren,

karrasiaka. Hetan zen, ondikotz, Lesgoirres liotinant eskualduna, jada kolpatua izanagatik bere menekoen kuraieztatzeko han zagona. Hola hiltzen ziren egiazko aintzindariak!

Ez dakigu Haltsun gerlako hilen harrian liotinant maite eta bihotzdun horren izenik baden. Balinbada, hurrek egun guziez behatzen ahal diote: gerlarien liburuetan ez dute ederragorik irakurtuko. Dugesclin, Bayard, Soult eta gaineratekoekin parrez-par ezar dezakete aise Lesgoirres beren herritarra...

Gure lehen sailak suarekin garbiturik, bide frango egin zuten alemanek, urrundik igortzen giniozkaten tiro parrapaten gatik. Etzitaken bertzela. Eta gehiago ere aise eginen zuten norbeitetik nunbeitik oihu egin ez balauku: *Bainan orok tiro egizue bada su untziri, bertzeak geroko utzirik*. Hala egin ginuen eta laster aleman mitriolatzaile guziak lurrean ziren, sutan berak. Bardin ginen orduan alemanekin. Ez gintuzten gehiago lotsatzen ahal. Hain xuxen, *flammenverfer* hek erortzearekin, duda bat ukhan zuten ondotik zarraizkiotenek. Beren-baitaratzeko astirik ez ginioten utzi. Berrogoita hamar bat fran-

tses jauzian sahetsetik agertu zitzaizkoten eta baionetekin erhainen xixtatzen hasi, haratxago joanarazteko. Ez dugu zeren erran alemanek berehala beren gibelaldeak erakutsi zauzkutela.

Bainan laguntzerat heldu zitzaizkotela lasterka bertze batzu ikusirik, jauregitik ehun bat metretan bezala gelditu ziren. Denbora laster badoa holakoetan: bederatziak eta erdiak baziren jada. Bardin laster joan zauzkun gainerateko orenak, tiroka, baionetakaldika, azkenekotz errabiaren errabiaz xixpa muthurrekin burutik beheiti elgarri kaskaka. Arratseko zortzi orentan harrasiaren gibelean ziren alemanak... egundaino bezala. Zer eguna! Orhoitzekoa segurki...

Biharamunean nihor guti higitu zela erraiten badautzuegu sinhetsiko othe gaitutzue? Aise. Alabainan nekheak ez du legerik.

Berrogoita Hamazazpigarrena hondatua baitzen, kasik xirtxikatua, laguntzaileak igorri zauzkuten orduan: Hirur Ehun eta Hemeretzigarreneko berrehun bat soldado. Hain xuxen zer-nahi eskualdun bazen horietan. Laster elgar ezagutu ginuen, berehala ez bada. Bethi gogoan dugu nola geronek oren goxo frango iragan ginuen

gure laguntzerat ethorri bi sarjant eskualdunekin. Bat mugazaina zen, bertzea Laphurdiko kontrabandixt handienetarik bat. Etzen haatik, berehala errateko, Senpereko jaun erretor zenaren Piarres famatu hura: mugari hurbiltxagokoa zen oraino. Gerla hasi baino zenbeit egun lehentxago mugazain harek baziozkan kontrabandixt hari ehun ardiz goiti mendian khenduak. Adixkide handi ziren halere, eta nola musikatzen zuten elgar gure aintzinean!

—Gerla ondoan ez da gehiago menturatuko ene ardieri lotzerat: hemen gizon hiltzen arizana, badaki makhilarekin kaskako bat emanen diotalla!

—Errak, hi bezala arizana nauk gero ni ere gizon hiltzen! Hire makhikaldi txarrari tiro batez ihardesten badiot, adio hi eta hire ardiak! Orhoit hadi!

Eskualdun horiekin mendixka haren puntan iragan gintuen lauzpabortz egunak baino lakhetago guti ukhan dugu gerlan. Arras ongi elgar aditu ginuen alemaneri buru egiteko eta ez gintuen urhats baten egiterat utzi. Egia erran, alemanek beren aldetik etzuten halako errabiarik

erakutsi: iduri zuten kasik gure herritarrekin ongi goxatzerat utzi nahi gintuztela!

Hogoita bi egun bazuen Mont-Renaud gure gain ginuela. Aski egun segurki. Handik jautsara-zi gintuzten beraz, ezkerrago joanarazteko Ville deithu herrixka baten aintzinerat, *gure* mendixka Ehun eta Hogoita Hirurgarreneko soldado bip-hil eta erneeri fidaturik. Ez ginezaken ordain hoberik utz han. Ez ginuen uste berritz harat itzultzerik izanen ginuela. Bainan apherilaren hogoita hamarrean alemanen *minenverfer* eta kanoiek Ehun eta Hogoita Hirurgarrena kasik leherturik, eskukaldi bat eman behar izan ginion, jada jauregirat heldurik urrunago abian ziren alemanen gelditzeko lehenik, urrunago fueratzeko gero. Zer eskerrak bihurtu zauzkun ondoko egun batez Ehun eta Hogoita Hirurgarreneko koronelak! Merezi gintuen...

Erran gabe doa, lehen jada xirtxikatua bazen, orduan azken piruraino higatua zela Berrogoita Hamazazpigarrena. Bagintuen zortzi aintzindari hilak eta hamasei handizki kolpaturik joanak: ehun eta hirur soldado hilak, lau ehun eta hiruetan hogoita hamabortz kolpaturik edo eriturik

Frantzia barnerat igorriak. Zenbeit galdu, bertzalde.

Hainitz laudorio ethorri zitzaukun Armadatik eta alde guzietarik. Bat bakharrak etzaukun halako atseginik egin nola gure eskuinean gerlan ari zen tropako koronelarenak. Huna hitzez hitz zer erran zaukun: «Martxoaren hogoita bortzetik hunat bethi elgarri hurbil ginabiltzan, zuek eta gu. Ez zintuztegun orai arte guti baizik ezagutzen. Harritu eta xoratu gaitutzue. Hogoia aldiz irabazia zinukete gerlako xingola. Bozkatzuz ematen balitz, urhezko bat eman ginezazueke berehala ene soldado guziek eta nik. Bai, gora Berrogoita Hamazazpigarrena!»

Atsegin egiten dutela holako elhe batzuek gerlarieri, ezin dudatua eta ukhatua da. Handi-  
goa eta miletan handi-  
goa ukhan ginuen haatik ondoko egun batez, Mont-Renaud eta inguruak utzirik, handik urrun Berrogoita Hamazazpigarreneko eskualdun gehienek elgar atxeman ginuen! Zer besarkadak elgarri heldu orduko, oro bertze mundutik atheratzen bagine bezala, Margny-lès-Compiègne derizan herrixkako ostatu txar batean! Nausiak uste izan zuen hastean

oro erhoak ginela! Bainan gero, oro erran ginioz-kalarik, zoin gogo onez eman zauzkun zenbeit pinta arno xahar... konduaren gainerat! Kondu eder baten gainerat...

Eskual-Herriko elizetan maiatza heldu delarik kantatzen aditzen baitugu *Maiatza da urtheko sasoin ederrena*, mila bederatzi ehun eta hemezortzikoa baino ederragorik ez da egundaino argitu guretzat...

Bainan Maiatzean Ama Birjinari kantatzen zaion kantu maite horrek badakizue betbetan zertaz orhoitarazten gaituen? Mirakuilu handi bat iduri duen zerbeitez. Beha bada. Passel jada aiphatu dautzugun herri ttipian etxe guziak aspaldi lurrerat joanak ziren, aleman kanoiek leherturik. Doidoia elizako alderdi bat zagon xutik eta hartan, xilo batean, Ama Birjina Lurdekoa, erostean bezen berri eta oso. Mont-Renaud gure mendixkari beha zagon, zaintzeko bezala. Eta nork daki ez duen harek zaindu, guk baino hobeki edo gurekin? Guillaume Alemaniako enperadoreak oihuka errana zuen Lurdeko Ama Birjinak etzuela aski bothere izanen aleman soldadoek hautsiko zituzten besoen antolatzekeo...

eta Lurdeko Ama Birjina baten aintzinean zer  
hautsi zen? Alemaniako soldadoen nausitasuna.  
Handik goiti ez dute maiz onik ukhan...



## XI. Mont-Lavé eta Saconin

Aintzindari jakintsuna egiten zuten Alemanian Ludendorff [1]: ez ginion gutiago Pariseko bidea moztu guk. Nola iretsiko zuen hori? Bertze alde batetarat itzuli zituen beraz begiak eta Chemin des Dames hain ezaguturat bere armada hoberenak igorri. Eta, ondikotz, zilho bat nunbeit eginik, armada horiek abiatu ziren aintzinat, iduri aldi huntan oro erhautsi behar zituztela!

Bethiko beribil handi hetan hartu gintuzten berritz Compiègne Johanna d'Ark Saindu gerlaria erortzen ikusi zuen hiriaren inguruetan eta bederatzi orenen buruan Laversine derizan herrixka bati hurbil pausatu. Herrixka hortan erran beharra zaukuten zoin gune har. Bardin-bardina zitzaukun harat edo hunat igor ginetzaten, fidos ez ginuela jada aintzineko egunetan ikusiak baino handiagorik ikusiko. Egia hau da: ez ginuela haatik hainitz jostatu behar, manatu gintuzten eskualdean!

Jada iguzkia gora zen, Saconin iraganik, eskuin eta ezker abiatu ginelarik: airetako ale-

manek nahi bezala segitu zituzten gure urhats guziak. Horrengatik min handirik gabe heldu ginen gudua karraskan ari zen gunerat. Afrikako soldado batzu ziren han ordu arte. Aldizkatu gintuen berehala eta... oren laurden edo oren erdi baten buruko alemaneri hamabortz ehun metra lur khendu. Jauzi handia! Ondikotz, handiegia! Horrek galdu behar gintuen arratsari buruz eta biharamunean. Gure eskuin-ezkerretan nihor etzen higitu: alde guzietarik hartuak ginen beraz. Maiatzaren hogoita hameka zen.

Ilhuna hurbilago eta etsaien tiro parrapatak usuago heldu ziren. Bainan laster ezagutu ginuen zeri buruz jokatu gogo zuten: goizean hartua baiginioten Ferme Mont-Lavé erraten zioten laborari etxe handi bat haren zaintzen utziak zituzten ehun eta hogoitahamar soldado preso terrepentean harturik, hari buruz. Arrats guzia jauzika ibili ziren alde guzietarat eta halere deusik ez egin: Arosteguy liotinant miarritzar batek ederki buru atxiki zioten: etzituen hurbiltzerat utzi...

Errearoaren lehenean aleman airetakoen burrunba aditua ginuen argia gabe: zerbeit ikusi

nahi zuten... Kanoikaldieri bidea erakutsi zioteneko, Arosteguy liotinant bihotzduna zen lekuan lehertu eta ehortzi zuten bere lagun gehienekin, eta lasterka laborari etxeari buruz abiatu bizpahirur tropa handi. Bospasei ehun bazitazken, elgar lothuak. Tiro parrapata batzuek berehala erakutsi zioten etzela oraino heien sudurarentzat gure lurrik ez-eta etxerik, zaintzale guziak etzituztela oraino hilak. Oraino handik, gero hemendik, azkenean alde zuten lekhotik, hamar aldiz bederen gure lagun gaixoeri oldartu ziren aleman horiek. Bethi debaldetan: etzuten beren bidea hilez emokatu baizik.

Uste ginuen ilhunak bederen geldiaraziko zituela. Batere. Eta horra nun oihu bat aditzen dugun hamarrak alderat laborari etxeko athean: *Frantsesak, ez du balio gehiago tema zaitezten: zatozte!* Alemanek zer irriak eginen zituzten barnean ziren frantsesek sinhetsi balituzte eta xixpak pausatu! Urruntxago harrituak ginauden, gu, zer ikusi edo aditu behar ginuen. Ez ginen luzez beha egon. Botaren araberrako errefera ethorri zitzaioten alemaneri, eta hitz batek, hitz bakhar batek ilhuna inharrosi zuen:

*Kaka dela!* Gau beltzak beharrietarat ekharri zaukunean, zer atsegina egin zaukun hitz horrek! Argia urratu arte ez ginuen bertzerik ibili gogoan: *Kaka dela!*

Etxea ez dutela lausenguka hartuko etsiturik, zer egiten dute orduan alemanek? Ilhunari esker beren *minenverfer* berrienak hurbiltzen dituzte eta, harria harriaren ondotik etxe guzia leher-tzen argiko. Beharrik barnean zirenak aski goiz ohartu baitziren irriskuari eta, etsaiak beren lanari utzirik, demendreneko harrabotsik egin gabe gibelesko athe batetik, bi jauziz, urruntxa-goko harpe batean sartu!

Berrogoita hamar ziren gorenetik hola alema-neri buru egin zutenak. Berrogoita hamar bat baxharrik, bainan zer gizonak! Ondikotz, hemen emateko ez dakigu Durat kapitainaren izena bai-zik! Lehentxago kapitain horrek igorria zioten dakizuen hitza etsaieri. Ez da harritzeko holako gizona, sarjant xoil gerlarat ethorririk, kapitain-goraino heldua bazen. Ezin sinhetsia da nola egin zuen oraino buru oldar handieneri delako harpean, eta batere ez dakigu azkenean noiz eta nola atheratu zen handik bere azken hamar gizo-

nekin! Dakiguna da, koronelak manatu ez balio atheratzea, hantxe hilen zela lorietan! Jada buruan emana omen zuen *kepi* [2] gorri-gorri bat hirur galonekin orori erakusteko ederki erortzen bazakiela kapitain frantses batek...

Denbora hortan zer ari ginen gu? Sinhetsazue nihor etzagola lo: etzen han lokhartzerik. Emeki-emeki alde guzietarik inguratzen ari gintuzten alemanek. Hortzez eta haginez ariz, hein batean atxiki gintuen behin eta oraino bi egunez. Bainan eskuin eta ezkerrean laguntzailerik ez bada gudu batean, deus egitekorik ez da... eskuak altxatzea eta amor ematea baizik. Ez ginuen amor eman nahi. Ez ginuen amor eman. Nolazpeit jeneralari gure manerak jakinarazirik, manua igorri zaukun alemanetarik lehenbailehen urruntzeko. Errearoaren biga zen. Gaua hedatu orduko, parrez-par baiginuen malda bat, Saconin ahal ginuen bezala erauntsi lotsagarrien azpian iraganik; malda hari aztaparka lothu ginen. Herriko etxe gehienak jada lurrerat ari ziren karraskan.

Eskuineko frantsesak leherturik, argiko berritz gainean gintuen etsaiak. Gu gintuzken

naski gehienik partida han gaindi. Egitate batzu badire gizonak sekulan ahantz ez detzazkenak: ez othe zituzten gure batzu oraino gogoan alemanek? Iduri luke.

Berrogoita Hamazazpigarrena urtuxea zen bizpahirur egun hartan. Bainan Bussy bezalako koronel batekin zer ez ginezaken egin oraino? Urhatsez urhats baizik ez ginuen beraz gehiago lurrik utzi. Zehe baxhotxa ederki gusta zitzaion etsaiari, eta, laguntza gibeletik ethorri zaukuean, jada malda hartako ogi eremuetan itzatu ginuen!

Nahi duzue orai jakin zer erraten duen gudu horietaz geroztik eskuratu dugun egunkari aleman batek? Huna:

«Horra hirur egun gudu gaitzak ari direla Saconin frantses herrixkaren inguruetan. Bai, frantsesek bihotz handia erakutsi dute gudu horietan! Tropa troparen gainean igorri dute guri bidearen hesteko! Halere zehez-zehe lur phuska bat hartu diotegu. Ohore beraz hogoi bat frantses erreximenduren kontra gudukatu diren alemaneri! Frantzia guziko erreximendu hoberenak

zituzten aintzinean, *Division de Fer* famatua barne».

Berrogoita Hamazazpigarrenak ez othe detzazke beretzat har eta atxik elhe horietarik zenbeit? Baietz iduritzen zauku. Bizpahirur egun horietan ez ginuen gure aldean soldado frantses handirik ikusi. Norekin parti beraz laudorioak? Guretzat atxikitzen bagintu ez baxharrik zenbeit, baino oro?

Ederki pagatu gintuen haatik. Maiatzaren lauean koronelak oro bildu gintuelarik handik zenbeit mila urhatsetan, badakizue zenbat soldado eta aintzindari ziren eskas?

Hameka ehun. Eta hameka ehun horietan, hirur ehun hil naski!

Hiletan batek min egin zaukun guzien gaine-tik, adixkideetan leialena baitzen. Hendaiarra sortzez, Antoine Lafosse postetako enplegatu bat zen gerla aintzinean. Gerlan liotinangorat heldua zen jada. Begitarte onaren egiten bazakien nor-nahiri, bainan guzien artean eskualdu-neri, fagore edo laguntza baten galdetzerat joai-ten zitzaizkonean. Orok maite zuten. Gaixo Antoine! Hiltzeko bezpera arratsean ikusia

ginuen eta mintzatua. Halako lotsa bat bazuen jada hil behar zuela eta etzaukun gorde. Frango-tan gerlan gertatu dena da, hola, hiltzerat zoazi-nak lotsa horrek hartzea: nork ez diote hori aditu gerlari guzieri?

Eta orai bakhotxari berea. Erran dezagun beraz maiatzaren hiruan Tarbeko Hogoita Lauga-rreneko soldado batzu ikusi gintuela gutarterai-no beren kanoiekin menturatzen eta gutartetik beren kanoiak etsaiaren kontra deskargatzen zirurikan. Segurki birikak beren lekhuak zituzten gizon horiek! Eskuaraz mintzo ziren elgarren artean... nunbeitik ere! Ez da beraz harritzeko...

[1] Erich Ludendorff. (1865 -1937) Alema-niar jenerala. Lehen Mundu Gerrako estra-tegia gidaria. (P.O.)

[2] Kapelu militarra. (P.O.)



## **XII. Berritz Argonan eta alemanen ondotik**

Zer herri ederrak ikusi gintuen oraino berritz Argonarat joateko: Pantin, Gretz, Esternay, Fère-Champenoise, Vitry-le-François, Revigny, Ste-Menehould, Clermont! Gogotik treinatik jautsiko ginen segurki karriken ikusteko, baina gure beha zagon Berrehun eta Hamaseigarrena, Vienne-le-Château eta La Harazée jada ezaguetako gune ilhunetan.

Ez gintuzten toki hobeago batetarat igortzen ahal gure zaurien sendatzeko. Hamabortz egun goxo baizik ez ginuen haatik iragan hango erretetan. Aintzindariak nunbeitik ikasirik bake denborak zirela Arbonan ere, hamabortz egun lehenago han berean aldizkatua ginuen Berrehun eta Hamaseigarrena gau batez ethorri zitzaunkun eta guk baino hobeki ezagutzen zituen erreka hetan eman, lehen oldarrari buru egiteko. Gu bospasei kilometretan kokatu gintuzten, oihan beltz batzuen erdian, handik galdea zen tokirat jautsian joateko. Bizpahirurlauetan aleman eta fran-

tses kanoiak orroaz hasirik, uste izan ginuen alemanak agertu zirela eta abiatu. Bainan ez. Argonan deus etzen higitu: Champagnan hasi ziren gerlako azken guduak, uztailaren hamabortzean.

Ez ginuen oraino Argonatik joan behar hango erreketarat itzuli bat egin gabe. Ondoko gau batez hartu gintuen. Ez luzerentzat; hiruzpalau aleman esku-kolpe ttipiren urruntzeko eta gero nek bertze hainbertzeren egiteko denbora doi-doi! Italianoak gure gunea hartu zaukuten agorrilaren hamabian eta Argonari erran ginion adio. Adio, bethikotz! Eta bizpahirur egunen buruan treina har-arazi zaukuten Breteuil delakoan jausteko. Bidean hiri eder frango ikusi ginuen berritz: Chalons-sur-Marne, Meaux, Le Bourget, Chantilly eta Creil bederen.

Bertzeen izenak aspaldi galduak ditugu gogotik eta paperetarik.

Egun guti zuen oraino gu ginoazin guneeetan alemanek zafraldi bat ederra hartua zutela. Gibelerat zoazin, bainan ederki buru eginez han-hemenka. Zerbeit onik egitekotan, etziren nihun lurrari lotzerat utzi behar: horra zer erran zaukuten aintzindariak Fouquescourt delako herri

baten ondoan Kanadako soldado eder batzuek aldizkatu gintuelarik hogoita seian.

Biharamunean eta hogoita zortzian ez ginen hainitz lehertu *Cote 77* deithu mendixka hartzeko. Ez eta ere haratxago lur umil luze batzu etsaiari khentzeko. Are gutiago Nesles hiriaz jabetzeko. Zer dire kilometrak eta han-hemenka tiro parrapata batzu garhaitia jada eskuen puntan dutela dakiten gerlarientzat? Bi airetako aleman ozarrek bizpahirur orenez aski kexatu bagintuzten noiz-nahi ehun metretaraino jautsiz eta handik agertzen gineneko tirokatuz, aireak hutsarazi giniozkaten azkenean heieri ere: itzuli-purdika eror-arazi gintuen sua zariotela. Barneko laur airezkarietarik bat etzen atheratu: lauak gure begien bixtan hantxe xirrigarratu ziren xori batzu bezala.

Eguerdi ondoxean ibai gothor baten aintzinean ginen: l'Ingon. Orai gerla aintzinean baino ezagutuago da segurki Frantzian. Bertzaldean etsaiak erne zaudela ikusi ginuen. Etzen zuhurtzia egun argiz oldartzea: ibaiari hurbildu orduko erreko gintuzten alemanek. Gau beltzaren beha egon ginen beraz eta hamar orenetan berritz

abiatu. Ondikotz ez gintuen bi zubixka baizik bertzalderat joiteko. Hurbiltzen ziren guziak lurrerat edo urerat zoazila ikusirik, koronela etzen tematu eta inguruetan etzanarazi gintuen oro gau guzia lo egin ginezan manaturik... baginuen. Nola egin lo holakoetan!

Dena dela, sei orenetako berritz bazterrak higitzen hasiak ziren biharamunean. Bainan Cote 77 delakoan beren zimentazko geriza batzuetan, bertze orduz Plateau de Vauclerc hartan bezala, ongi gordeak, oro phorroskatuko gintuzten eta laster alemanek, bezperan baino gehiago tematu bagine. Ez ginuen huts hori egin. Ez gintuen eskuak gurutzatu ere haatik, bainan multxoka hameka itzuli egin ginuen eskuin eta ezker nun zer xilo atxemanen ginuen azeri batzu bezala sartzeko. Etzen xilorik.

Bizkitartean ibaia iragan behar zen. Iragan... ahal bezen laster eta gostako zena gusta, aintzindariak nahi zuten bezala buruilaren lehen egunetako Somme ibai handiaren hegietarat heltzekotz! Jainkoak beharrik argitu zuen orduan bederatzigarren konpainiako liotinant gazte bip-hil bat: Carayon de Talpeirac. Gure kanoiak bet-

betan orroaz hasarazi zituen alemanek erauntsi horren azpian buruak aphen zetzaten, hura kanoikaldieri berrogoi bat lagunekin hogoi urhatsetan jarraikiko zela. Hala egin zuten eta sudurrak oraino lurrean sartuak atxeman zubiz bertzaldeko lehen etsaiak. Etzuten nihoren preso hartzeko astirik, oro kalitu zituzten, jausian hanharat joan eta, berehala egin erreka ttipi batzuetan etzanik, etsaiak menean atxiki! Orduan delako liotinantak argi xuri bat zeruetan gora igorri zuen, zubia iragan ginuen orok eta eskuinagotik tiroka ari zitzauzkun guziak hil edo preso hartu. Laur ehun preso hartu gintuen, zenbeit gora behera. Azken denboretan frantsesek baino mila aldiz aiseago altxatzen zituzten eskuak gure etsaiek, irriskua gainean zutenean: batek etzuen *kaput* nahi...

Ibaia iragana ginuen eta eremu eder bat hartua: zerbeitrek traba egiten zaukun halere. Eta traba handia, urrunago menturatzeko! herrixka txar batek. Rouy-le-Petit zuen izena: alemanez bethea zen. Zer lanak ikusi gintuen heieri herrixka horren hutsarazteko. Buruilaren lehenean hartu ginioten, gehien-gehienik Drouault eta Fis-

her bi liotinant gazteeri esker. Hau kanboarra zen: orai Hendaian bizi da bere emazte eta haurrekin. Noiz-nahi ikusten dugu, bainan egun eta oren latzgarri horiek ez ditugu behinere aiphatzen: ez du maite. Guk ere ez gintuen eginen, *Eskualdunak* galdetu ez balauzku...

Gauari esker Fischer liotinanta lagun batzuekin hurbildu zen lehen etxeraino eta hango beilariak lo atxeman. Ez da bethi errex loari ihardokitzea, alemana izanik ere. Eta beilari dohaka-beak etziren oraingo arras iratzarriak, handik aski urrun gure koronelak bira ostiko eman ziotelarik nunbeit! Herri bat hartu behar denean, lehen etxea etsaiari khentzeak ematen du lanik handiena. Hura baginuen eskualdun bati esker. Handik, argia ethorri orduko, bertze guzietan sartu ginen, baioneten puntak alemanen gibeldetan ederki kamusturik...

Horra nun eta nola irabazi zuen Berrogoita Hamazazpigarrenak bere bigarren ohorezko aiphamena. Etzaukuten eman zaukutena baino ederragorik ematen ahal. Bainan ez ginuen ebausia. Bertze hainitz eta hainitzen artean han galdu ginuen gure gomenantetan maitatuena:

Pimouguet zaharra. Gerla hastetik gurekin zen. Orok *Pimpim* erraten ginion, trufaz baino gehiago amodioz. Hala erratea nahi zuen berak ere. Olata bezen ona zen bere meneko gizonentzat. Aspaldi gerlako xingolaren beha baitzagon, ukhan ginuen egunean hetsi ziozkan begiak kanoikaldi batek.

Pimouguet gomenantak ere bezperan ukhana zuen hiltzerat zoazinen eta jada aiphatua dugun lotsa hura. Haren meneko soldado batzuek zutelakotz l'Ingon lehenik iragan, eskuen tinkatzerat joana zitzaioten orori, loria-ren loriaz. Drouault liotinanta ikusirik joan zitzaion eta bere haur bat bezala besarkatu zuen. Eta orduan harekin ziren lagunen alderat itzulirik: *Oi, zertako behar dugu holako gizona bihar galdu!* Oro harritu zituen elhe horrek. Oharturik, huna zer erran zuen oraino gure gomenant zaharrak: *Bai, bihar hilen da... eta ni ere ba!* Egia zen, ondikotz!

## XIII. Azken guduak: azken egunak

Buruilaren lehena. L'Ingon ibaia orok iragana dute: Rouy-le-Petit hartua da. Gerla ez da halere bururatua: hiltzerat doan lehoinak aztaparkaldi ederrik ematen ohi du oraino.

Bi orenetan manu berri bat ethorri zitzaukun: lehen-bailehen joateko Somme ibaiaraino, eta abiatu ginen berehala. Xixtu ederrik aditu behar ginuen haatik bidean. Nihun etzen hesi bat: ageria aintzinatu behar ginuen nahi-eta-ez. Eta, horren gainerat, uste baino hainitz aleman gehiago aintzinean! Oro gain-gainetik armatuak, bertalde! Zer parrapatak igorri zauzkuten burutik beheiti! Hainbertzetaraino nun, ilhunari buruz, gu oro etzanak ikustearekin lotsatuak ginela egin baitzuten! Eta oldartu zauzkun. Garhaitu gintuen oraino eta beren tokietarat joanarazi. Biharamunean hartu ginioten *Cote 77*, bainan zer zalapartak ibili ondoan! Biderik etzen gehiago ageri, hainbertze hil bazen! Prusiano famatuak gintuen partida: ez da beraz harri-



tzeko: ...Voyennes eta Courlemanche urruntxago ziren. Jauzi berean aise joan gintazken haradino, bainan etzen zuhurtzia: gure eskuineko tropa frantsesek urhats ttipi bat baizik etzuten oraino eginik. Ez ginuen Mont-Lavé hartako erho-keria hasi nahi: sobera gusta zi-tzaukun. Bertzalde ez ginen aski, sobera menturatzeko. Ere mu ederra hartu ginuen halere, bi herrixka horietako lehen etxetaraino kasik, bazterretik oraino xehatu gintuzten tiroen gatik. Erran ditake biharamu-nean, aldizkatu gintuztelarik, phikoak onduak atxeman zituztela Ehun eta Berrogoita Laugarreneko adixkideek. Laster hartu zituzten bi herrixkak.

Ondikotz, Berrogoita Hamazazpigarrenean ez ginen gehiago hiruzpalau ehun gizon baizik gelditzen! Gure hiletan bazen bertze aintzindari eskualdun bat: P. B. Montalibet. Mauletarra zen. Delako zimentazko geriza hetarik baten aintzinean hil zaukun, hango aleman guziak kalitu ondoan. Laster ikharagarriko etsai tropa batek inguratu zuen haatik: etzuen amor eman nahi izan: grenada bat eskuan zeraukan oraino, biha-

ramunean han iragan ginelarik. Heriotze ederra aintzindari batentzat!

Ez ginuen, phorroskatuak izanik ere, ephehandirik ukhan: bi egunen buruko galdea ginuen berritz eta emeki-emeki jarraikiarazi gintuzten guduan ari zireneri, zer gerta ere. Horrengatik buruilaren hamabia arte ez ginuen tiro bakhar bat igorri. Orduan Hamel delako herrixkari hurbil zer-nahi ikusi ginuen mendixka bat alemaneri ezin khenduz. Etzaukuten segurki aise utzi eta ez dugu sekulan ahantziko han iragaiten zer ikusi ginuen biharamunean: hogoi bat etsai hilak lerroan beren *mitrallusen* aldean: lehenak zigarro erdi bat bazuen oraino ahoan, bigarrenak arrosorio batzu... eskuan!

Handik bizpahirur egunen buruan gune hura utzarazi zaukuten eta beribil handietan ereman gintuzten, lagun berrien bilha, Villers-Cotterets jada guti edo aski ezagutzen ginuen hiri pollit batetarat. Ondikotz, eskas gintuen hamabortz ehun lagunentzat ez gintuen han ehun bat baizik atxeman!

Urriaren hamarra arte nihork etzaukun deus galdetu, ez bagine baino gehiago. Guk ere ez

nihori. Bainan ez gintuzten ahantziak: zakuak bizkarrean harturik, berritz bidearen gainean ginen hamekan argiko. Orduan ikusi ginuen lehen aldikotz Soissons, fama handiko hiri bat. Erran gabe doa etzuela gehiago hiri baten itxura handirik: etzen orotan harria harriaren gainean baizik ageri.

Ez ginen haatik han sartu berritz suan. Ez-eta berehala. Bainan ez ditugu hemen ezarriko alemanetarat hurbiltzeko iragan gintuen herri eta herrixkak. Sobera dire. Hau erran dezagun bak-harrik: hobe zen herrixka horietan ez gelditzea, nun-nahi *minak* utziak baitzituzten alemanek!

Berritz tiroka hasi ginenean, ezagun xahar bat baginuen begien bixtan, Chevresis-les-Dames. Lau urtheren buruan lehengo begitarte pollita galduxa zuen haatik. Ez ginen harritu. Bospasei egunez zalaparta ederrik ibili ginuen hango inguruetan, azkenean alemanak berritz ihesari eman arte.

Handik goiti frango aldiz, eta azkarki, buru egin zaukuten oraino: nun, ahantzia dugu. Ahan-ztia ez duguna da harasko fueratuak gintuela hazilaren hiruan pausatzerat igorri gintuztelarik

zenbeit egunentzat aintzindariak. Ez ginuen gehiago tirorik aditu behar. Hazilaren hamekan eskualdun tropa baten kantu eta irrintzinek Compiègne ederki inharrosi zutela erraten badautzuegu sinhetsiko othe gaitutzue? Ba naski.

Iduritzen zaku ez duela hainitz balio bertze deus handirik erran dezazuegun orai. Ez da Eskual-Herrian etxerik Mulhouse eta Alsaza guzian handik goiti orok iragan gintuen egun ederren berriak xeheki aditu ez dituenik. Han atxeman gintuen oren handiak. Oren handia? Bai, gure Eskual-Herri maiterat bethikotz itzultzeko orena! Ordu zuen berrogoita hamasei ilhabeteren buruan.

Horrengatik aithortuko othe dautzuegu ez giniola bihotzminik gabe adio erran Alsazari? Ez baitezpada ederra zaukulakotz, ez-eta ere hango jendea maitagarria delakotz! Eskualdunarentzat deusek ez ditu Eskual-Herria eta eskualdunak balio! Bihotzmin harek bertze errorik zuen: han utzi behar gintuen oraino gerlako lagunetarik hainitz! Han utzi behar hainbertze aintzindari on!

Han utzi behar gure koronel maite xaharra! Eta han utzi behar... sekulan gehiago ez ikusteko!

Eta, salbu bakhar-bakhar batzu, gehiago ez ditugu ikusi! Menturaz frango bada jada gerlako bi mila berrehun eta hogoita hemezortzi lagunenganat joanik! Hek eta bizi direnak zeruan ikusiko ditugu egun batez, agian...